

SUSPERTZE, ERALDATZE ETA ERRESILIENTZIA PLANA GAUZATZEKO IRUÑERRIKO MANKOMUNITATEAREN IRUZURRAREN AURKAKO NEURRIEN PLANA

2022/PCD-GEN-MCP/000160

1. Sarrera.
2. Planaren xedea eta norainokoa.
3. Aplikazio-eremua.
4. Egitura eratzaillearen eta eginkizunen definizioa, interes-gatazka, iruzurra eta ustelkeria prebenitzeko, detektatzeko eta zuzentzeko neurriekin lotuta.
5. Terminoen glosarioa eta oinarrizko kontzeptuak.
6. Egon litekeen interes-gatazka tratatzeko prozedurak.

- 6.1. Interes-gatazka prebenitzearekin lotutako neurriak.

- 6.1.1.- Interes-gatazka mota desberdinen eta aplikagarria den araudiaren gainean informazioa ematea langileei.

- 6.1.2.- Interes Gatazkarik Ezaren Adierazpena (IGEA) nahitaez betetzea SEEPa gauzatzeko prozeduretan esku hartzen duten guztiek.

- 6.1.3.- Datu-baseak eta tresnak.

- 6.1.4.- Kontratuak esleitzeko prozeduran edo laguntzak emateko prozeduran parte-hartzaileek erabakiak hartzeko prozesuan bidegabeki eragiteko edo isilpeko informazioa lortzeko egindako saiakeren berri ematea hierarkian gorago dagoenari.

- 6.2. Interes-gatazka detektatu eta kudeatzearekin lotutako neurriak.

- 6.2.1.- Egon litekeen interes-gatazka batek ukitutako pertsonak hierarkian gorago dagoenari jakinaraztea (Finantza Araudiaren 61. artikulua).

- 6.2.2.- Hasierako adierazpena aurkeztu ondoren interes-gatazkako egoera bat sortzen bada, haren berri eduki bezain laster deklaratu beharko da, prozeduran jarduteari uko egin eta kasua hierarkian gorago dagoenari jakinarazi.

- 6.2.3.- Interes-gatazka dagoela gatazka horrek ondorioak eduki ondoren detektatu den kasuetan jarraitu beharreko prozedura: iruzur potentzialaren kasuetarako aurreikusitako prozedura aplikatuko litzateke.

7. Iruzzurraren aurkako neurriak “iruzurraren aurkako ziklo” esaten zaionaren lau elementu giltzarrien inguruan: prebentzioa, detekzioa, zuzenketa eta jazarpena.

- 7.1. Prebentzioa.

7.1.1.- Iruzurraren aurkako adierazpen instituzionala egin da.

7.1.2.- Egon litekeen interes-gatazka kudeatzeari, detektatzeari eta prebenitzeari dagokion dokumentu bat egin du Iruñerriko Mankomunitateak.

7.1.3.- Iruzurraren aurkako batzorde bat identifikatu da, eta INPa egin, aplikatu eta hari jarraipena egitetik erortzen diren eginkizunak eta bertan dauden neurrietatik eratorritakoak egotzi zaizkio.

7.1.4.- Erakundeko langileei jakinarazi zaie SNCAk bideratutako salaketakanal bat (Infraude) dagoela.

7.1.5.- Prestakuntza eta sentsibilizazioa iruzurraren aurkako gaien.

7.1.6.- SEEParen jarduketak gauzatzearekin lotutako konpromiso-adierazpena.

7.1.7.- Enplegatu publikoen jokabide-kodea onartu da.

7.1.8.- Agintari eta kargudun publikoen gobernu onaren kodea ezarri da.

7.1.9.- Kudeaketa-, kontrol- eta ordainketa-prozesuetan eginkizunak banatzea.

7.1.10.- Barne-kontrolerako sistema.

7.1.11.- Batasunaren finantza-interesei kaltea egiteko arriskuaren, egikaritzeko probabilitatearen eta balizko inpaktuaren hasierako ebaluazioa.

7.2. Detekzioa.

7.2.1.- Datu-baseak erabiltzea.

7.2.2.- Bandera gorrien katalogoa edo iruzur-arriskuaren adierazleak.

7.2.3.- Bandera gorriak egiaztatzeko zerrenda jarduketak gauzatzean.

7.2.4.- Bandera gorria aktibatzea.

7.2.5.- Iruzur-susmo posibleak salatzeako kanala, Infraude.

7.2.6.- INParekin lotutako salaketetarako berariazko postontzia.

7.3. Zuzenketa- eta jazarpen neurriak.

8. Planaren publizitatea, jarraipena eta eguneratzea.

8.1. Publizitatea eta komunikazioa.

8.2. Planaren jarraipena eta eguneratzea.

I. Eranskina. Iruzurraren aurkako adierazpen instituzionala.

II. Eranskina. Interes Gatazkarik Ezaren Adierazpena (IGEA).

III. Eranskina. SEEParen jarduketak gauzatzearekin lotutako konpromiso-adierazpena.

IV. Eranskina. Datuak lagatzeko eta tratatzeko adierazpena, SEEParen jarduketak gauzatzearekin lotuta.

V. Eranskina. Enplegatu publikoen jokabide-kodea.

VI. Eranskina. Agintari eta kargudun publikoen gobernu onaren kodea.

VII. Eranskina. Interes-gatazkaren, iruzurraren eta ustelkeriaren prebentziorako testaren emaitzak.

VIII. Eranskina. Arrisku-adierazle posibleak, bandera gorriak.

IX. Eranskina. Bandera gorriak egiaztatzekeo zerrenda.

1. SARRERA

Sektore publikoa eratzen duten erakundeek duten zerbitzu publikoaren eginkizuna interes orokorra lortzea da, dagozkien eskumenen esparruan. Hori dela-eta, garrantzitsua da integritate edo osotasun publikoaren kultura praktikatzea antolakundearen maila guztietan, eta horretarako funtsezkoa da integritate-planak edukitzea, kode etikoak, komunikazio eta salaketarako bideak eta prestakuntza-praktikak. Horien guztien helburua da interes orokorraren aurkako praktikek eragindako arriskuak eta irregulartasunak (penalak eta administratiboak) minimizatzea, iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkak prebenitu eta detektatuta, eta halakoak zuzentzeko neurriak hartuta.

Iruñerriko Mankomunitateak bere xede eta helburuak lortzeko aplikagarriak diren arau juridiko, etiko eta moralak betetzeko konpromisoa hartuta du.

Beste alde batetik, COVID-19aren krisiaren testuinguruan, Europako Batzordeak estatu kideei laguntzeko egungo esparrua sendotu du, tresna berritzaile baten bidez finantza-laguntza zuzenak emanez. Helburu horretarako, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa (SEM) sortu da, berariazko finantza-laguntza, esanguratsua eta eraginkorra emateko xedearekin, erreforma iraunkorak eta inbertsio publiko lotuak areagotzeko estatu kideetan.

Estatu kideek suspertze- eta erresilientzia-planak egin dituzte -Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana, Espainiaren kasuan (hemendik aurrera, SEEP)-, beren erreforma-programa nazionalen (EPN) zati moduan. Plan horiek inbertsio- eta erreforma-lehentasunak ezartzen dituzte, eta mekanismoaren bidez finantzatu beharreko dagozkien inbertsio-paketeak. Laguntza epeka ordaintzen da, egindako aurrerabideen arabera eta aurretik zehaztutako erreferentzia-irizpideen oinarriaren gainean.

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021/241 (EB) Araudiak, 2021eko otsailaren 12koak, SEMa ezartzen du, zeina Next Generation EUren elementu nagusi gisa eratzen den. Araudi horren 22. artikulua, "Batasunaren finantza-interesak babestea" artikulua, zenbait betebeharrak ezartzen dizkie estatu kideei, SEMaren onuradun diren aldetik, Batasuneko finantza-interesak babestearekin lotuta, haien artean:

a) "aldian behin egiaztatzea emandako finantzaketa zuzen erabili dela, aplikagarriak diren arau guztiekin bat eginez, eta erreformak eta proiektuak aplikatzeko neurri oro, suspertze- eta erresilientzia-planaren esparruaren barnean, zuzen aplikatu dela aplikagarriak diren arau guztien arabera, bereziki, iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkak prebenitu, detektatu eta zuzentzeko dagokionez;

b) iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkak prebenitu, detektatu eta zuzentzeko egokiak diren neurriak hartzea -Finantza Araudiaren 61. artikuluan, 2. eta 3. ataletan, zehazten diren arabera-, Batasunaren interesari eragiten dietenak, eta bidegabeki jabetu

diren funtsak berreskuratzeko legezko ekintzak gauzatzea, baita suspertze- eta erresilientzia-planaren esparruan erreformak eta inbertsio-proiektuak gauatzeko zeinahi neurri dagokionez ere”.

2021eko apirilaren 30ean, 2021eko apirilaren 27ko Ministro Kontseiluaren Akordioaren edukia kaleratu zen Estatuko Aldizkari Ofizialean. Haren arabera onartu zen SEEPa. SEEPean bildutako neurriak lau ardatz nagusiren inguruan egituratuta daude: trantsizio ekologikoa, eraldatze digitala, gizarte- eta lurralde-kohesioa, eta genero-berdintasuna.

HFP/1030/2021 Aginduak, irailaren 29koak, SEEPa kudeatzeko sistema egituratzen du. 6. artikuluan, “Iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkak prebenitu, detektatu eta zuzentzeko mekanismoak indartzea” izenburuan duenean, 1. atalean, hau jasotzen du: “SEEPen neurriak betearazten parte hartzen duen erakunde erabakitzaile edo betearazle orok iruzurraren aurkako neurrien aurkako neurrien plan bat izan beharko du, dagokion jarduera-eremuan dagozkion funtsak aplikatu beharreko arauen arabera erabili direla bermatu eta adierazi ahal izateko, bereziki, iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkak prebenitu, detektatu eta zuzentzeari dagokionez”.

Plan horien barnean, nahitaezko hiru jarduketa ezartzen ditu agindu horrek: iruzur-arriskuaren ebaluazioa, «Interes Gatazkarik Ezaren Adierazpena» (IGEA) betetzea eta interes-gatazkei heltzeko prozedura bat eta gutxieneko eskakizun batzuk prest edukitzea:

— Onartzeko epea: aginduak indarra hartu ondoren 90 egun edo erakundeak SEEP gauzatzean parte hartzen duela dakienetik aurrera (6.5a artikulua).

— Hartutako neurrien egitura bat: «iruzurraren aurkako zikloaren» faseei jarraitu behar diete, hau da, prebentzioaren, detekzioaren, zuzenketaren eta jazarpenaren faseak bete behar dituzte (6.5b artikulua).

— Arriskuen analisisa eta ebaluazioa: SEEPa gauatzeko prozesu giltzarrien arriskuak identifikatu eta aztertu behar dira, eta haietako bakoitzaren probabilitatea eta balizko inpaktua (larritasuna) ebaluatu behar da. Gainera, aurreko analisiaren eta ebaluazioaren aldi behingo berrikuspena (urtean edo bi urtean behin) aurreikusi behar da eta ustelkeriaren edo iruzurraren zantzuak egonez gero, aldaketak prozeduretan edo langileengan *ad hoc* berrikuspena (6.5c artikulua).

— Prebentzio-neurrien baldintzak (6.5d eta i artikulua):

- Prebentzio-neurrien definizioa, hondar-arriskua onargarria izan dadin. Neurri hauek egokiak izan behar dute arrisku-egoera jakinerako eta proportzionalak arriskuaren probabilitate eta larritasunarekiko.
- Interes-gatazken egoerak prebenitu eta kudeatzeari dagozkion prozedurak barne hartu behar dituzte.

— Zantzuak detektatzeko neurrien baldintzak (6.5e artikulua). Erakundeak ezartzen dituen alerta-seinaleei (*red flag*) egokitu behar zaizkie eta prozedura bat hartu behar dute barne aplikatu ahal izateko. Neurri-multzo honetan, gogora ekarri behar da

alertarako barne-kanalek duten eginkizun giltzarria, erakunde publikoek 2021eko abendutik aurrera ezarrita eduki behar dituzten kanalek.

— Zuzenketa-neurrien baldintzak (6.5f artikulua). Detektatutako iruzur «susmoak» edo zantzuak jakinarazteko mekanismo argiak hartu behar dituzte barne.

— Jazarpen-neurrien baldintzak (6.5g eta h artikulua). Hauetarako prozesu egokiak ezarri behar dituzte:

- Ustelkeriaren edo iruzurraren kasu susmagarriei jarraipena egitea.
- Iruzurrezko eran gastatutako EBren funtsak berreskuratzea.
- Ustelkeriarekin eta iruzurrarekin lotutako prozesuak, prozedurak eta kontrolak berrikustea, eta emaitzak helaraztea delako arriskuen analisi eta ebaluazioaren berrikuspenean.

Iruzurraren aurkako neurrien plan honen xedea da (hemendik aurrera, INP) Iruñerriko Mankomunitatearen esparruan iruzurraren aurkako gaian neurriak eta prozedurak zehaztea, erreferentzia moduan hartuta HFP/1030/2021 Agindua eta Ogasun eta Funtzio Publikoko Ministerioaren 2022ko urtarrilaren 22an horren gainean emandako orientazioak. Iruzurraren aurkako ziklo esaten zaionaren lau elementu giltzarrien inguruan daude egituratuta neurriak: prebentzioa, detekzioa, zuzenketa eta jazarpena.

INP hau Mankomunitateko Batzorde Iraunkorrak onartu du, 2022ko apirilaren 11n egindako saioan, eta aplikatzekoa da Iruñerriko Mankomunitateak eta bera kudeatzeko Iruñerriko Zerbitzuak, S.A. sozietateak, hasteko eguna gorabehera, SEEPa gauzatzeko garatzen dituzten proiektu guztietan eta plan horren indarraldi osoan.

Iruzurraren aurkako Planean jasotako neurriak betetzeko egiten diren jarduketa guztiak dokumentuetan jasota geldituko dira, berariaz aipatuta gauzatu dituzten organoak edo pertsonak, edukia eta lortutako emaitzak, eta bai erlazioa duten jarduketan kateamendua ere, hartara, sistemaren funtzionamendua ebaluatzeko gai den auditoria-aztarna bat edukitzeko.

Iruñerriko Mankomunitateak, SEEParen erakunde betearazlea den aldetik, dokumentu honetan bere INPa jasotzen du, komunitatean, nazioan eta eskualdean, hurrenez hurren, ezarrita dauden iruzurraren aurkako betekizun desberdinak betetzeko bertako langileen zeregina errazteko helburuarekin.

Dokumentu hau egiteko, aintzat hartu dira Europako Batzordearen, Espainiako Gobernuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen jarraibideak eta araudiak.

2.- PLANAREN XEDEA ETA NORAINOKOA

INP honen xedea da iruzur-arriskuaren kontrolerako neurriak zehaztea, SEM funtsak gauzatzearen esparruan arreta berezia jarrita, Iruñerriko Mankomunitatearen eta bera kudeatzeko Iruñerriko Zerbitzuak, S.A. sozietatearen esparruan, aintzat hartuta

iruzurraren gaian egotzita dituen eskumenak, soil-soilik administratiboak. Ez dituzte barne hartzen, inolako kasutan, ikerketa-eskumenak.

Kudeaketa-tresna hauen bidez kudeatuko dituzte esku hartzen dutenek SEMetik datozen funtsak:

- Dirulaguntzak.
- Kontratazio publikoa.
- Kudeaketa zuzena (baliabide propioak, kudeaketa-aginduak, elkarlanerako hitzarmenak...).

Tresna horiek aplikatzeko, dagokien araudia izango da aplikagarria, bereziki:

- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena.
- 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena.
- 11/2005 Foru Legea, azaroaren 9koa, Dirulaguntzei buruzkoa.
- 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzko lege orokorra.
- 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren erregelamendua onartzen duena.
- 2/2018 Foru Legea, apirilaren 13koa, Kontratu publikoei buruzkoa.
- HFP/1030/2021 Agindua, irailaren 29koa, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana kudeatzeko sistema zehazten duena.
- HFP/1031/2021 Agindua, irailaren 29koa, Estatuko, Autonomia Erkidegoko eta Tokiko Sektore Publikoko Erakundeek eman beharreko informazioaren prozedura eta formatua ezartzen dituen, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana osatzen duten alderdien mugarren eta helburuen betetze-mailaren eta aurrekontuen eta kontabilitatearen segimendua egiteko.
- 36/2020 Errege Lege Dekretua, abenduaren 30ekoa, zeinaren bidez presako neurriak onesten baitira Administrazio Publikoa modernizatzeko eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana gauzatzeko.
- 4/2021 Foru Lege-Dekretua, apirilaren 14koa, zeinaren bidez premiazko neurriak onesten baitira suspertzerako Europako bitartekoetatik heltzen diren funtsen bidez finantzatzen ahal diren jarduketak kudeatzeko eta betetzeko.

INP honen iraupena mugagabea izango da, baina aldiari behin berrikusiko da bi urtean behin eta, edozein kasutan, arriskuaren ebaluazioa, inpaktua eta iruzur-arriskuaren probabilitatea berrikusiko da gauzatzearen prozesu giltzarrietan iruzur-kasuren bat detektatu denean edo aldaketa esanguratsuak daudenean prozeduretan edo langileengan.

Iruzzurraren eta ustelkeriaren aurkako borrokaren alderdi desberdinak kontuan hartzeko lau arlo handitan oinarritzen da sistema hau: prebentzioa, detekzioa, zuzenketa eta jazarpena.

INP honek, halaber, egon litezkeen interes-gatazken tratamendurako jarraitu beharreko prozedura ere hartzen du barne, aintzat hartuta hau: nahiz eta balizko interes-gatazka bat egoteak ez duen ekartzen nahitaez iruzurra egotea, interes-gatazka hori garaiz ez konpontzeak bai ekar dezakeela iruzur-egoera. Horrenbestez, konpondu gabeko interes-gatazka bat izan daiteke ustezko iruzur baten adierazlea. Hartara, iruzurra gertatu izan dela agerian utz daitekeen faseetako lehena konpondu gabeko interes-gatazka bat da, hau da, ukitutako pertsonak ez direnean behar bezala abstenitu edo ez direnean errefusatu, interes-gatazken egoerak gertatzen badira batera edo haiek gertatu direla jakiten bada, hurrenez hurren.

3. APLIKAZIO-EREMUA

INP honen neurriak zuzenean aplikatzekoak dira SEMaren funtsak kudeatzeko Iruñerriko Mankomunitatearen eta Iruñerriko Zerbitzuak, S.A. sozietatearen esparruan.

Iruñerriko Zerbitzuak, S.A. sozietateari aplikatzea izango da Suspertze eta Erresilientzia Mekanisмотik datozen funtsak kudeatu, gauzatu edo horretan laguntzen duen aldetik, eta, gainera, Iruñerriko Zerbitzuak, S.A. sozietatearen araubide juridikoaren berezitasunak eta gauzatu ditzakeen proiektuen berezitasunak kontuan hartuta, eta bai azpiproiektuen eta jarduketaren ardura duten kudeaketa-organismoek plan hau beren eremuetara egokitzeko beharrezkotzat jotzen dituzten berezitasunak ezarri ahal izango dituzte, betiere egokitzapen horiek Planean ezarritako printzipioen aurkakoak ez badira. Horretarako, Iruñerriko Zerbitzuak, S.A. sozietatearen funtsak kudeatzen dituen unitateak bere eginkizunak betetzeko beharrezkoa den informazio eta dokumentazio guztia bidaliko dio Iruzzurraren aurkako Batzordeari.

Funtsezkoa da erantzukizun-maila guztiak ondo definituta geratzea, SEEParen dokumentuaren 4.6 atalarekin bat etorritik (Kontrola eta Auditoria izenekoa), batez ere kontrolari dagokionez:

- 1. maila – Organo betearazlearen barne-kontrola. Mekanismoaren barnean kokatutako jarduera bat gauzatzearekin lotutako edozein administrazio-jardueraren kontrol primarioa eta oinarritzkoa da. Bere eginkizuna da lege-eskakizunak betetzeari buruz eta mugarriak eta helburuak betetzeari buruz segurtasuna ematea, baita finantza-kudeaketa ona bermatzea ere, administrazio-prozedura arruntak aplikatuta. Zehazki, SEEParen neurriek hurrengo hauek betetzen dituzten jarraipena: ezarritako ezagutza tematikoak; mugarriak eta helburuak betetzea; finantzaketa bikoitza, interes-gatazka aztertzea; ustelkeria ikertzea; eta iruzurra kontrolatzea. Berariazko katalogo bat egingo da, barne hartuko duena arriskua detektatu eta ebaluatzeko metodologia, jarduketa-mota desberdinak aintzat hartuta.

- 2. maila – Organo independente baten barne-kontrola. Gastua kudeatzen duten organoekiko modu independentean jarduten duten administrazio jarduleekiko independenteak diren barne-kontrolako organoei (kontu-hartzailatza orokorrak eta zerbitzu juridikoak; erakunde publikoetako kontrol-organo baliokideak) esleitutako kudeaketa-kontrola da. Bere jardueren artean daude kontratazio-mahaietan parte hartzea; dirulaguntzak arautzen dituzten oinarrien aurretiazko txostenak; nahitaezkoa eta bete beharrekota den gastua betearazteko egintzen legezketasunaren kontrola eta alde zuzeneko fiskalizazioa. 424/2017 Errege Dekretua, apirilaren 28koa, Tokiko sektore publikoko entitateen barne-kontrolerako araubide juridikoa arautzen duena, kontuan hartu behar da.

- 3. maila – Ex post auditoriak eta kontrolak. Kontrolaren xede den organo edo erakundearekiko autonomia osoz beste bien gainean jarduten duen finantza-kontrola da. Estatuko Administrazio Kontu Hartzailatza Orokorraren (IGAE: <https://www.igae.pap.hacienda.gob.es/sitios/igae/es-ES/Paginas/inicio.aspx>) arduradunak, Mekanismoa Kontrolatzeko Agintaritzaren aldetik, abenduaren 30eko 36/2020 Errege Lege Dekretuaren 21. artikulua araberak, zeinak Administrazio Publikoaren modernizatzeko eta SEEPa betearazteko urteko neurriak onartzen dituen, hirietako eta autonomia-erkidegoetako Kontu Hartzailatza Orokorrekin lankidetzan jarduteko beharrezkoa denean.

4. EGITURA ERATZAILEAREN ETA EGINKIZUNEN DEFINIZIOA, INTERES-GATAZKA, IRUZURRA ETA USTELKERIA PREBENITZEKO, DETEKTATZEKO ETA ZUZENTZEKO NEURRIEKIN LOTUTA

Iruñerriko Mankomunitateko lehendakariaren 149/2022 Ebazpenaren bidez, Iruzuraren aurkako Batzordea eratzea onartu da, iruzurraren aurka borrokatzera bideratutako neurriak hartzeko eta arriskua ebaluatzeko. Batzorde horren jardunak, besteak beste, legezketasunaren, objektibotasunaren, inpartzialtasunaren eta konfidentzialtasunaren printzipioei erantzun die.

Iruzuraren aurkako Batzordearen eginkizunak hauek izango dira:

- Batasunaren finantza-interesetarako arriskuaren ebaluazioa egitea edo, egokia bada, gainbegiratu eta onartzea.
- Arrisku-adierazleak identifikatzean parte hartzea, lan teknikoaren eginez, kudeaketaren kontrola gauzatzean egin beharrekota kontrolen plangintza zehazteko xedearekin, arrisku handiagoa ikusten den esparruak lehenetsita.
- Egokientzat jotzen den organoari proposatzea INPa onartzea eta aldi behin eguneratzea, aplikagarriak diren arrisku-adierazleak proposatuta.
- Erakundeko langileei eta zerbitzuak kudeatzea aginduta dituen erakundeei INPa bera onartu eta eguneratu dela jakinarazteko komunikazioa eta berarekin eta bere neurriekin egin behar diren gainerako komunikazioak egiten direla zaintzea.

- Jasotzen dituen aferak aztertzea, iruzurtzat edo ustelkeriatzat har daitezkeenak, eta, egokia bada, organo eskudunari igortzeko proposamena egitea, dagokion erakundera bidaltzeko, ustezko iruzurraren edo ustelkeriaren motaren eta norainokoaren arabera.
- Interes-gatazka, iruzurra eta ustelkeria prebenitzeko, detektatzeko, zuzentzeko eta jazartzeko beharrezkoak diren dokumentuen ereduak egin eta baliozkotzea, eta haiekin lotutako jarduketaren dokumentazioa.
- Interes-gatazka, iruzurra eta ustelkeria prebenitu, detektatu, zuzendu eta jazartzeari dagozkion prozedurak hobetzeko eta zuzentzeko neurriak proposatzea.
- Berariazko ikastaroen bidez, gai hau erakundearen Prestakuntza Planean sartzeko aukera ebaluatzea.
- Informazio-bideak ezartzea Batasunaren finantza-interesak babestearekin lotuta.
- Espediente-kopuruarengatik edo prozeduren ezaugarriengatik lan-zama handiko kudeaketa-esparruekin lotuta, laginketa-sistema nahikoa definitzea, jarduketei, proiektuei eta/edo azpiproiektuei, lotutako arriskuak lehenetsita, laginketarako irizpideak ezarrita; eta ahuleziak detektatuz gero, irizpide horiek aldatzea, egokia bada, laginketak zabaldua.
- Erakundeko langileen artean zabaltzea SNCA Iruzurraren aurkako Koordinazio Zerbitzu Nazionalaren (Infraude) kanpoko salaketa-postontzia dagoelako informazioa, Europako funtsak ukitzen dituzten iruzur edo irregulartasunei buruzko informazioa komunikatzeko. Berariazko atal bat du Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoari buruz.
- Lanerako prozedura bat ezartzea. Emandako eskumenen artean, txostenak eskuratu ahal izango dituzte eta espedienteak bideratzeko eskumenak eduki ahal izango dituzte.
- Iruzurraren aurkako Batzordeak onartzen duen barne-kontrolerako plana gauzatzea.
- Egon litezkeen iruzur-zantzuen komunikazioen analisia. Haiek aztertu eta baloratzea.
- Hierarkian gorago dagoenari eta, egokia bada, organo kolegiatuari ustezko iruzurraren edo ustelkeriaren kasuen komunikazioa egitea, hark ebaluatzeko.
- Egokia denean, iruzurraren aurkako Batzordeak ebaluatu ondoren, jasotzen dituen aferak hierarkian gorago dagoenari helaraztea, iruzurtzat edo ustelkeriatzat jo daitezkeenak, egokia den erakundera bidaltzeko, ustezko iruzurraren edo ustelkeriaren motaren eta norainokoaren arabera. SEEParen esparrua uki dezaketenetan, Ogasun Ministerioako Europako Funtsen Idazkaritza Nagusiari (Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren agintaritza arduraduna) jakinarazi beharko zaizkio gertatutako gertakariak eta hartutako neurriak, iruzurra detektatzen denean edo egiaztatutako iruzurra denean (edo, egokia bada, jarduketak gauzatzea agindu dion erakunde erabakitzaileari edo erakunde betearazleari komunikatzea).
- Informazio erreserbatu bat abiaraztea, egon litezkeen erantzukizunak ebaluatzeko eta, egokia bada, gaiaren arabera eskumena duen organoari gertakariak jakinaraztea, ekonomia-aurrekontu gaiaren arau-hausteagatik espedienteak abiaraztea egokia den edo ez ebaluatze aldera.

40/2015 Legean, urriaren 1ekoan, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarenean, ezarrita dagoenaren arabera egingo dira Iruzuraren aurkako Batzordearen bileren deia eta garapena, eta bai saio horien agiriak ere. Agiriak eta analisiaren xede izan diren gainerako dokumentuak artxibatu eta zaindu egin beharko dira. Edonola ere, Iruzuraren aurkako Batzordearen bileretara joaten direnek isilpean gordeko dituzte Batzordearen akordioak, ez dituzte ezagutzera emango beren kargua gauzatzean jakiten dituzten informazioak, datuak eta txostenak, eta ez dituzte beren edo beste batzuen mesederako erabiliko. Beren eginkizunak gauzatzeari utzi diotenean ere betebeharrak horiek indarrean egongo dira.

5.- TERMINOEN GLOSARIOA ETA OINARRIZKO KONTZEPTUAK

5.1. TERMINOEN GLOSARIOA

Dokumentu honetan gehien erabiltzen diren terminoetako bakoitzaren norainokoa zuzen interpretatu eta ulertzea ziurtatzeko helburuarekin, hona hemen haien glosarioa:

- Iruzuraren susmoa**: irregulartasuna, zeinak estatu mailako prozedura administratibo eta/edo judicial bat hastea eragiten duen iruzurra nahita egin ote den zehazteko, bereziki Europako Erkidegoen finantza-interesak babesteari buruzko Hitzarmenaren 1. artikuluko 1. paragrafoa a) idatz-zatiaren zentzuan (Kontseiluaren 1995eko uztailaren 26ko Egintzan ezarri zen hitzarmen hori).
- Kontrola**: estatu kideek ezarritako kontrol-sistemen eginkizuna da kudeaketa eraginkorra eta finantzarioki egokia egiten dela ziurtatzea. Horretarako, hainbat instantziak operazioen kontrolak eta auditoriak egingo dituzte, bai eta jarraipen- eta kontrol-sistemen kalitate-egiaztapenak eta auditoriak ere.
- Egiaztapen-zerrenda edo check-list-a**: izapide jakin bat formalizatzeko beharrezko betekizunen eta dokumentazioaren zerrenda jasotzen duen dokumentua. Baldintza horiek egiaztatze eta dokumentazio hori jasotzeko ardura duenak bete beharko du, eta sinaduraren eta dataren bidez jasota utziko du.
- Bandera gorria**: iruzur-arriskua egon daitekeela adierazten duen alarma-seinalea/adierazlea.
- Erakunde erabakitzailea**: SEEPen aurrekontu-zuzkidura duten ministerio-sailak, haiei baitagokie erreformak eta inbertsioak planifikatzeko eta haien jarraipena egiteko erantzukizuna, bai eta haien mugarrak eta helburuak betetzeko ere.
- Erakunde betearazlea**: proiektuak (ministerio-sailak eta EAO Estatuko Administrazio Orokorreko erakundeak) edo azpiproiektuak (ministerio-sailak, EAOko erakundeak, autonomia-erkidegoetako eta tokiko administrazioak eta sektore publikoko beste parte-hartzaile batzuk) gauzatzeari arduratzen den erakundea, erakunde erabakitzailearen irizpide eta jarraibideen arabera.

- Kudeaketa-organoa: erakunde betearazlearen esparruan, proiektuaren edo azpiproiektuaren kudeaketa-txostena egiteko, sinatzeko eta izapidetzeko ardura duen organoa.
- Iruzuraren aurkako Koordinazio Zerbitzu Nazionala (SNCA): Estatuko Administrazio Kontu Hartzailera Orokorren organoetako bat da, irailaren 19ko 802/2014 Errege Dekretuaren 4. artikuluko 3. paragrafoaren arabera. Dekretu horrek, besteak beste, Ogasunaren eta Herri Administrazioen Ministerioaren oinarritzko egitura organikoa garatzen duen urtarrilaren 27ko 256/2012 Errege Dekretuaren 11. artikuluan idazketa aldarazten du. Haren eginkizunak abuztuaren 3ko 682/2021 Errege Dekretuaren 19.5.h) artikuluan jasotzen dira (Ogasun eta Funtzio Publikoko Ministerioaren oinarritzko egitura organikoa garatzen duena eta urtarrilaren 28ko 139/2020 Errege Dekretua, ministerioetako sailen oinarritzko egitura organikoa ezartzen duena, aldarazten duena), bai eta Europar Batasuneko finantza-estrategiak sortzeko eta abian jartzeko beharrezko diren administrazio-interesak sustatzeko eginkizunak dagozkion Zuzendaritza Nagusiaren mailan ere; Europar Batasuneko funtsak kudeatzeko sistema nazionalak izan ditzaketen hutsuneak identifikatzea; erakunde nazionalen eta OLAFen artean irregulartasunei eta iruzur-susmoiei buruzko koordinazio- eta informazio-bideak ezartzea; eta iruzurrari aurre hartzeko eta aurre egiteko prestakuntza sustatzea.
- Iruzuraren aurkako Borrokarako Europako Bulegoa (OLAF): Europar Batasuneko (EB) erakunde komunitarioek beren finantza-interesak babesteko sortutako erakundea da, eta bere erantzukizun nagusiak hauek dira: EBko funtsei eragiten dieten iruzurrari eta ustelkeriari buruzko ikerketa independenteak egitea, EBko zergadunen dirua Europan hazkundea eta enplegua sor dezaketen proiektuetara bideratzen dela zaintzeko; herritarrek Europako erakundeetan duten konfiantza indartzen laguntzea, EBko langileen edo EBko erakundeetako kideen hutsegite larriak ikertuz; eta EBn iruzurraren aurka borrokatzeko politika sendoa garatzea.

5.2.- OINARRIZKO KONTZEPTUAK

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2017/1371 (EB) Zuzentaraua, 2017ko uztailaren 5ekoa, Batasunaren finantza-interesak ukitzen dituen iruzurraren aurka Zigor Zuzenbidearen bidez borrokatzeari buruzkoa (hemendik aurrera, PIF Zuzentaraua), eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018/1046 (EB, Euratom) Araudia, 2018ko uztailaren 18koa, Batasunaren Aurrekontu nagusiari aplikagarriak zaizkion finantza-arauei buruzkoa (Euren Finantza Araudia), aintzat hartuta, hona hemen definizio hauek:

IRUZURRA

1.- Gastuen arloan, honako hauei buruz nahita gauzatutako edozein ekintza edo ez-egite:

- Adierazpen edo agiri faltsuak, zehaztugabeak edo osatugabeak erabiltzea edo aurkeztea, Batasunaren aurrekontu nagusitik datozen edo Batasunak edo bere izenean administratutako aurrekontuetatik datozen funtsak edo aktiboak jasotzea edo bidegabeki atxikitzea dakartenak.

- Ondorio bera duen informazio bat jakinarazteko berriazko betebeharrak ez betezea.
- Funtsekin edo aktibo horiek bidegabeki erabiltzea, hasieran ematea eragin zuten helburuez bestelako helburuetarako.

2. Kontratu publikoekin lotutako gastuei dagokienez, egilearentzat edo beste pertsona batentzat legez kontrako irabazi-asmoz egiten direnean, honako hauei buruzko edozein ekintza edo ez-egite:

- Adierazpen edo agiri faltsuak, zehaztugabeak edo osatugabeak erabiltzea edo aurkeztea, Batasunaren aurrekontu nagusiko edo Batasunak edo bere izenean administratutako aurrekontuetako funtsak edo aktiboak bidegabeki erabiltzea edo funtsik gabe atxikitzea dakartenak.
- Ondorio bera duen informazio bat jakinarazteko berriazko betebeharrak ez betezea.
- Funtsekin edo aktibo horiek hasieran ematea eragin zuten helburuez bestelako helburuetarako erabiltzea, Batasunaren finantza-interesei kalte egiten badie.

USTELKERIA

1. Ustelkeria aktiboa. Zuzenean edo bitartekari baten bidez funtzionario bati edozein motatako abantaila agintzen, eskaintzen edo ematen dion pertsona ororen ekintza, funtzionario horrentzat edo beste batentzat, bere betebeharraren arabera edo bere eginkizunak betetzean Batasunaren finantza-interesei kalte egiteko edo kalte egin ahal izateko moduan jardun dezan edo jardun ez dezan.

2. Ustelkeria pasiboa. Langile baten ekintza, zuzenean edo bitartekari baten bitartez, edozein motatako abantailak eskatzen edo jasotzen dituena, berarentzat edo beste batentzat, edo abantaila baten promesa onartzen duena, jardun dezan, edo jarduteari uko egiten dionean, bere betebeharraren arabera edo bere eginkizunak gauzatzean, Batasunaren finantza-interesei kalte egiteko edo kalte egiteko moduan.

INTERES-GATAZKA. Interes-gatazka egongo da funtzioen betetze inpartziala eta objektiboa arriskuan jartzen denean arrazoi familiarrengatik, afektiboengatik, kidetasun politiko edo nazionalengatik, interes ekonomikoengatik edo interes pertsonaleko zuzeneko edo zeharkako edozein arrazoiengatik. Bertako aktore moduan, hauei eragingo die: kudeaketa-, kontrol- eta ordainketa-lanak egiten dizuten langileak eta eginkizun horietako baten bat edo batzuetan, ordezkatzuz, parte hartzen duten bestelako agente batzuk; onuradun pribatuak, bazkideak, kontratistak eta azpikontratistak, funtsekin finantzatutako jarduerak egiten dituztenak, beren interesen alde jardun dezaketenenak, baina EBren finantza-interesen aurka, interes-gatazka baten esparruan.

1. Itxurazko interes-gatazka. Enplegatu edo onuradun baten interes pribatuek bere funtzioen edo betebeharraren egikaritze objektiboa arriskuan jar dezaketenean gertatzen da, baina, azkenik, pertsonaren jokabidearen, portaeraren edo harremanen alderdi zehatzekiko (edo alderdi horietan izandako ondorio batekiko) lotura identifikagarri eta indibidualik aurkitzen ez denean.

2. Interes-gatazka potentziala. Enplegatu edo onuradun batek horrelako interes pribatuak dituenean sortzen da, eta interes horiek interes-gatazka sor dezakete etorkizunean erantzukizun ofizial jakin batzuk bere gain hartu behar badituzte.

3. Interes-gatazka erreala. Langile baten betebeharrak publikoaren eta interes pribatuen arteko gatazka dakar, eta enplegatuak bere betebeharrak eta erantzukizun ofizialak betetzean modu bidegabean eragin dezaketen interes pertsonalak ditu. Onuradun baten kasuan, gatazka sortuko litzateke funtsen laguntza eskatzean hartutako betebeharren eta funtsen interes pribatuen artean, haiek modu bidegabean eragin baitezakete betebeharrak horiek betetzean.

IRREGULARTASUNA. Irregularitasuna da eragile ekonomiko baten ekintza edo ez-egite bati dagokion Zuzenbide Komunitarioaren xedapen bat urratzea, baldin eta horrek komunitateen aurrekontu orokorrari edo haiek administratutako aurrekontuei kalte egiten badie, edo arrisku hori badakar behinik behin, dela komunitateen kontura zuzenean jasotako baliabide propioetatik datozen diru-sarrerak gutxituta edo ezabatuta, dela gastu desegoki baten bidez.

6. EGON LITEKEEN INTERES-GATAZKA TRATATZEKO PROZEDURA

6.1. Interes-gatazka prebenitzairekin lotutako neurriak.

6.1.1.- Langileei informazioa eman eta komunikatu egingo zaie interes-gatazka mota desberdinen, hura ekiditeko moduen eta aplikagarria den araudiaren gainean. Dokumentu bat kaleratuko da Iruñerriko Mankomunitatearen intranetean, eta kaleratze horren berri emango zaie bai erakundeko langile guztiei, bai Iruñerriko Zerbitzuak, S.A. sozietatekoei ere, mezu elektronikoen bidez. Enplegatu publikoen Jokabide Kodearen eta Agintari eta kargudun publikoen Gobernu Onaren Kodearen berri emango da.

6.1.2.- Interes Gatazkarik Ezaren Adierazpena (IGEA) nahitaez bete beharko dute SEEPa gauzatzeko prozeduretan esku hartzen duten guztiek (II. ERANSKINA), edonola ere, kontratazio-organoaren/dirulaguntza emateko organoaren arduradunak, lizitazio-dokumentuak/oinarriak eta/edo deialdiak idazten dituzten langileek, eskabideak/eskaintzak/proposamenak ebaluatzen dituzten adituek, eskabideak/eskaintzak/proposamenak ebaluatzen dituzten batzordeetako kideek, baxuegiak diren eskaintzak baloratzeko txostenak egiten dituzten langile teknikoek eta

prozedurako gainerako organo kolegiatuek, kontratuaren arduraduna, espedientearen kudeaketa ekonomikoan parte hartzen dutenek.

Interes-gatazkarik ezaren adierazpenak formalizatuko dira behin ezagunak direnean laguntzen eskatzaileak edo lizitazioan parte hartu dutenak, eskabideak edo eskaintzak ebaluatzeko batzordeetan parte hartzen duten langileen kasuan, eta behin ezagunak direnean laguntzen onuradunak edo kontratuaren esleipenduna, kontratuaren/enkarguaren/hitzarmenaren/dirulaguntzaren jarraipenaz edo espedientearen kudeaketa ekonomikoaz arduratu behar duten langileen kasuan.

Organo kolegiatuen kasuan, adierazpen hori dagokion bileraren hasieran egingo dute bertan parte hartzen duten esku-hartzaile guztiek eta agirian jasota geldituko da.

Interes-gatazkarik ezaren adierazpenak jasotzen dituzten dokumentuak, prozeduretan esku hartzen dutenek egindakoak, bai sinatutakoak, eta bai organo kolegiatuen bileretan adierazitakoak eta agirietan jasotakoak, kontratatzeke edo laguntzak emateko espedienteetan sartu beharko dira, auditoria-aztarna egoki bat gordetzeari begira.

Era berean, IGEA bat bete beharko da, onuradunek bete beharreko baldintza moduan, laguntza emateko baldintzen barnean, interes-gatazka potentziala eduki dezaketen jarduerak garatu behar dituztenek, eta bai kontratistek eta azpikontratistek ere (helburu hauetarako, kontratazio publikoaren esparruan, kontuan hartu behar da Kontratazio Publikoaren Kontsultarako Batzordearen Instrukzioa, 2021eko abenduaren 23koa, SEEPetik datozen funtsekin finantzatuko diren kontratuen espedienteetan eta agiri zuzentzaileetan sartu beharreko alderdien gainekoa).

6.1.3.- Datu-baseak eta tresnak. Informazioa egiaztatu beharko da merkataritza-erregistroetako datu-baseen bidez, erakunde nazionalerako eta EBko datu-baseen bidez, enplegatuen espedienteen bidez (datuak babesteko arauak kontuan hartuta) edo datuak aztertzeke tresnak («*data mining*») edo arriskuak puntuatzeko tresnak (ARACHNE) erabiltzearen bidez.

6.1.4.- Kontratuak esleitzeko prozeduran edo laguntzak emateko prozeduran parte-hartzaileek erabakiak hartzeko prozesuan bidegabeki eragiteko edo isilpeko informazioa lortzeko egindako saiakeren berri emango zaio hierarkian gorago dagoenari.

6. 2. Interes-gatazka detektatu eta kudeatzearekin lotutako neurriak.

Baliteke prebentzio-neurriak hartzea nahikoa ez izatea, eta, horrenbestez, interes-gatazka nola detektatu ezarri beharra dago. Adierazpena berez ez litzateke nahikoa izango; izan ere, ukitutako pertsonen egoera aldatu egin baitaiteke prozeduran zehar.

6.2.1.- Egon litekeen interes-gatazka batek ukitutako pertsonak hierarkian gorago dagoenari jakinaraztea (Finantza Araudiaren 61. artikulua).

SEEPa gauzatzeko prozeduran parte hartzen duten langileetako bat ukitzen duen interes-gatazka baten arriskua dagoenean, delako pertsonak hierarkian gorago duenari helaraziko dio afera.

Hierarkian gorago dagoen horrek idatziz berretsiko du interes-gatazka dagoela uste den. Uste denean interes-gatazka dagoela, SEM proiektuaren ardura duen organoa arduratuko da delako pertsona horrek afera horretan jarduera oro alde batera uzteaz. Interes-gatazkaren arriskuko egoera jakin hori kudeatzeko hartzen diren erabakiak idatziz jasoko dira eta SEM Proiektuaren Auditoria Aztarnaren zati izango dira.

Kontratatzeko edo laguntzak emateko prozedura batean interes-gatazka bat egon litekeela dakiten pertsona edo erakunde orok, edo beste edozeinek, berehala jakinarazi beharko diote laguntza emateko organoari edo kontratatze organoari.

6.2.2.- Hasierako adierazpena aurkeztu ondoren interes-gatazkako egoera bat sortzen bada, haren berri eduki bezain laster deklaratu beharko da, prozeduran jarduteari uko egin eta kasua hierarkian gorago dagoenari jakinarazi (horrek ez du esan nahi nahitaez hasierako adierazpena faltsua zenik).

6.2.1. eta 6.2.2. ataletan deskribatutako kasu guztietan, ukitutako pertsonak edo egon litekeen interes-gatazkaren berri duen pertsonak haren nagusiari, hierarkian gorago dagoenari, bidaliko dio. Hierarkian gorago dagoen horrek gertakariak aztertu beharko ditu inplikaturako pertsonarekin, egoera argitzeko, eta idatziz berretsiko du, interes-gatazka dagoela uste bada. Hala bada, egokiak diren neurriak hartu beharko ditu, bere kasuan, ukitutako pertsonari eskatu beharko dio prozedurari uko egiteko edo, beharrezkoa bada, prozeduratik baztertu beharko du delako enplegatu publikoa, errekusazioaren bidez.

Kontratuak esleitzeko prozeduran edo laguntzak emateko prozeduran, erabakiak hartzeko prozesuan parte-hartzaileak bidegabeki eragiteko edo isilpeko informazioa lortzeko saiakerak jakinarazi bazaizkio hierarkian gorago dagoenari eta hori egiaztatzen duen dokumentazioa badago, egoera horren berri emango zaio kontratatze organoari edo laguntza emateko organoari, indarrean dagoen araudiaren arabera, egokiak diren neurriak har ditzan.

6.2.3.- Interes-gatazka dagoela gatazka horrek ondorioak eduki ondoren detektatu den kasuetan jarraitu beharreko prozedura: iruzur potentzialaren kasuetarako aurreikusitako prozedura aplikatuko litzateke.

Izan diren gertakariak dokumentuetan jasoko dira eta Iruzzurraren aurkako Batzordeari horren berri emango zaio, balorazio objektiboa egin dezan eta egokiak diren neurriak har ditzan.

Egokia bada, gertakarien eta hartutako neurrien berri emango zaio erakunde erabakitzaileari, edo jarduketak gauzatzea agindu dion erakunde betearazleari. Azken kasu horretan, erakunde hori izango da erakunde erabakitzaileari neurrien berri emango diona, zeinak afera jakinaraziko dion Agintaritzaren Arduradunari. Azken horrek egoki jotzen duen informazio gehigarria eskatu ahal izango du, jarraipenari eta Kontrol Agintaritzari komunikazioa egiteari begira.

7. IRUZURRAREN AURKAKO NEURRIAK **“IRUZURRAREN AURKAKO ZIKLO” ESATEN** **ZAIONAREN LAU ELEMENTU GILTZARRIEN** **INGURUAN: PREBENTZIOA, DETEKZIOA, ZUZENKETA** **ETA JAZARPENA**

7.1. Prebentzioa.

Arriskuaren prebentzioa sistemaren zati giltzarri bat da, interes-gatazka, iruzurra edo ustelkeria gertatzea ekiditen baitu. Kontuan hartuta iruzurrezko jokabidea frogatzeko eta hark eragindako kalteak konpontzeko zailtasuna, hobe da iruzurrezko jarduerari aurrea hartzea jada gertatu denean jardutea baino.

Espainiako esparru normatiboa prebentzio-sistema indartsua da, eta berdin estaltzen ditu Estatuko aurrekontu-funtsek finantzatutako-jarduketa eta bai Europar Batasunak finantzatutakoa ere. Hala ere, prebentzio-sistema osoa izanda ere, SEEPa gauzatzeko esparruan, Iruñerriko Mankomunitateak Batasunaren finantza-interesak babesteko hartua duen konpromisoaren esparruan bereziki, prebentzio-neurri hauek hartu behar dira.

7.1.1.- Iruzurraren aurkako adierazpen instituzionala egin da (I. ERANSKINA). Zabalkundea eman zaio langileen artean, intranetean kaleratuta eta erakundeko kide bakoitzari mezu elektronikoko bat bidalita, argitaratze hori jakinarazteko. Mezu horretan, argitalpen horretarako lotura egongo da. Jokabide Kodean, identifikatuta dago enplegatu publikoei dagokien konfidentzialtasun- eta sekretu-betebeharra, bai eta men egin beharreko opariren politika ere.

7.1.2.- Egon litekeen interes-gatazka kudeatzeari, detektatzeari eta prebenitzeari dagokion dokumentu bat egin du Iruñerriko Mankomunitateak. Dokumentu horretan informazioa ematen zaie langileei interes-gatazken mota desberdinen gainean, haiek saihesteko moduen eta gai honekin lotuta indarrean dagoen araudiaren gainean, eta, egon litekeen interes-gatazka baten detektatzen bada, jarraitu beharreko prozedura jasotzen da.

7.1.3.- Iruzurraren aurkako batzorde bat identifikatu da, eta INPa egin, aplikatu eta hari jarraipena egitetik eratoritzen diren eginkizunak eta bertan dauden neurrietatik eratorritakoak egotzi zaizkio. Halaber, iruzurraren ebaluazioa egin behar du, jaso ditzakeen salaketak aztertu, iruzurtzat edo ustelkeriatzat har daitezkeen egoerak ebaluatu eta, egokia bada, dagokien erakundeei jakinarazi, eta neurri zuzentzaileak proposatu.

7.1.4.- Erakundeko langileei jakinaraziko zaie SNCAk bideratutako salaketa-kanal bat (Infofraude) dagoela, Europako funtsak ukitzen dituzten iruzurrei eta irregulartasunei buruzko informazioa komunikatzeko. SEMari buruzko berariazko atal bat du, Europar Batasunetik heldu diren funtsen kontura osorik edo zati batean finantzatutako proiektu edo eragiketekin lotuta iruzurtzat edo irregulartasuntzat har daitezkeen gertakarien berri duten pertsonak jarduteko izan behar duten modua zehazteko.

7.1.5.- Prestakuntza eta sentsibilizazioa iruzurraren aurkako gaian.

Iruñerriko Mankomunitateak eta Iruñerriko Zerbitzuak, S.A. sozietateak sustatu eta erraztu egingo dute langileek parte hartzea INP honekin lotuta antolatzen diren prestakuntza- eta sentsibilizazio-ekintzetan, eta, zehazki, arreta alderdi hauetan jartzen dutenetan: arriskuen identifikazioa eta ebaluazioa, berariazko kontrolak ezartzea, jardutea iruzurra detektatuz gero, erreferentziazko kasu praktikoak eta abar.

Prestakuntza hartutako langileei dagokienez, Mankomunitatearen xedea da bi urteko epean langile guztiek hartuta izatea gai honen gaineko prestakuntza.

7.1.6.- SEEParen jarduketak gauzatzearekin lotutako konpromiso-adierazpena.

Mankomunitateak eta Iruñerriko Zerbitzuak, S.A. sozietateak gauzatutako SEEPeko proiektuei dagokienez, laguntza publikoen onuradun, kontratista eta azpikontratista guztiek konpromiso-adierazpen bat sinatu beharko dute, SEEPeko jarduketak gauzatzearekin lotuta. HFP/1030/2021 Aginduan, irailaren 29koan, dago eta plan honetako “SEEParen jarduketak gauzatzearekin lotutako konpromiso-adierazpena” III. **ERANSKINA**ren arabera egin behar da. Betebehar hau dagokien laguntzen deialdietan eta kontratazio-lizitazioetan sartuko da.

Gainera, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021/241 (EB) Araudiaren, 2021eko otsailaren 12koaren, 22. artikulua arabera, azken onuradunek onetsi egin beharko dute araudian berariaz zerrendatutako xedeetarako datu pertsonalak laga eta tratatzea, eta IV. **ERANSKINA** “Datuak lagatzeko eta tratatzeko adierazpena, SEEParen jarduketak gauzatzearekin lotuta” bete beharko dute.

7.1.7.- Enplegatutako publikoen jokabide-kodea onartu da. (V. ERANSKINA).

7.1.8.- Agintari eta kargudun publikoen gobernu onaren kodea ezarri da. (VI. ERANSKINA).

7.1.9.- Kudeaketa-, kontrol- eta ordainketa-prozesuetan eginkizunak banatzea. (1030/2021 Agindua, III.c Eranskina)

Kudeaketa-, kontrol- eta ordainketa-jarduketetan eginkizunen eta erantzukizunen banaketa argia eta berezia dago, bereizketa hori ageriko eginez.

Administrazio-prozeduren kudeaketa gaiaren arabera eskumena duen organoari dagokio; barne-kontrola, finantzarioa eta kontabilitatekoa, Kontu Hartzailletza

Orokorri; eta ordainketa guztiak agintzea, Iruñerriko Mankomunitateko lehendakariari.

Horrez guztiaz gain, kanpoko auditoreek urteko txostena egiten dute Mankomunitateko kontuen eta eragiketen gainean, eta, halaber, kanpoko kontrola egiten da Nafarroako Kontuen Ganberaren bidez.

7.1.10.- Barne-kontrolerako sistema.

Suspertze eta Erresilientzia Planean jasota dagoen kontrol- eta kudeaketa-sistemaren arabera, Iruñerriko Mankomunitatearen esparruan, SEM proiektuen kontrola bi mailatan definitzen da.

- Lehen mailako kontrola.

SEM proiektuen barne-kontrolerako lehen maila kontratu bakoitzaren unitate kudeatzaileari dagokio (SCPSAri egokitu ahal izango zaio). Hauek bermatzeko xedea izango du:

- Proiektua gauzatzeko antolatu edo egokitzen diren kudeaketa-tresnak zuzenbidearen arabera izatea.
- Dirulaguntzak emateko eta kontratuak esleitzeko ezarritako baldintzak betetzea, eta bai haien ondoriozko betebeharrak aitortzeko ere.
- Helburuak benetan betetzeari buruzko informazioaren fidagarritasuna.
- SEM proiektuak gauzatzeko jasotako finantzaketa zuzen erabiltzea.
- Dagozkien kudeaketa-planetan ezartzen denarekin bat eginda gauzatzea proiektuak.
- Erabakiak hartzeari dagozkion alderdiei buruz egiten diren lehen mailako kontrol-eragiketak haien aurretik gauzatuko dira, eta haiek hartu behar dituenak emaitzak jakin beharko ditu. Mugarriak eta helburuak betetzeari buruzko informazioaren fidagarritasunari dagozkion lehen mailako kontrol-eragiketak informazio-sisteman erregistratu aurretik egin beharko dira.
- Lehen mailako kontrolak egitea dokumentuen bidez egiaztatu beharko da. Zehazki, hauek jaso beharko dira:
 - Egiten duenaren nortasuna.
 - Erreferentzia-kode bat. Zehazki, ahalbidetuko du kontrol-eragiketa delako SEM proiektuarekin lotzea, edo zuzenean, edo gauzatzea dakarren izapidetzearen administrazio-espeditentearen bidez.
 - Egin deneko data.
 - Xedearen identifikazioa, egokia bada, posta- edo geografia-kokapena adierazita.
 - Aztertutako alderdi teknikoak edo juridikoak.
 - Egindako egiaztapen materialak eta lortutako ebidentziak.
 - Ebaluaziorako erabili diren alderaketa elementuak edo erreferentziak.
 - Emaitzak, lortu nahi ziren helburuei dagokienez.

Aurrekoa gorabehera, administrazio-prozesuek barne hartu ahal izango dute baldintzen kontrola “Erantzukizunpeko adierazpenen” bitartez, betetzen diren baldintzak deskribatzen dituztenen bitartez, eta kasu horietan, eta izapidetzea jarraitzeko ondorio bakarretarako, baldintzak betetzen direla hartu eta ulertu ahal izango da “Erantzukizunpeko adierazpena” egote hutsarekin. Kasu horietan, lehen

mailako kontrolak barne hartu beharko du deklaraturako baldintzak ondoren egiaztatzea eta, egokia bada, bidegabeki ordaindutako zenbatekoak berreskuratzeko prozesua hastea erraztu beharko du.

“Erantzukizunpeko adierazpenak” betebeharrak hauek bete beharko ditu:

- Adierazpenaren erantzulea identifikatuko du. Deklaraturako edukia okerra izatetik erator litezkeen kalteengatik Mankomunitateari ordaintzearen erantzulea izango da, hain zuzen.
- Betetzen direla adierazten den baldintzak zehaztasunez definituta egongo dira; zehazki, egiaztatze bidea emateko edo aurkako ebidentzia onartzeko adinako zehaztasunarekin.

. Bigarren mailako kontrola.

Bigarren mailako kontrola Kontu Hartzaitzak egingo du, 424/2017 Errege Dekretuan, apirilaren 28koan, Tokiko sektore publikoko entitateen barne-kontrolerako araubide juridikoa arautzen duenean, adierazitako baldintzetan. Adierazi beharko da aurrekontua kudeatzeko jarduketetan egiaztatu egingo dela emaitza diren zenbatekoen eta proiektuaren organo arduradunak onartutako ekonomia- eta aurrekontu-txostenaren edukiaren arteko koherentzia, eta txosten horren eta kudeaketa-planeko gainerako dokumentuen arteko koherentzia.

7.1.11.- Batasunaren finantza-interesei kaltea egiteko arriskuaren, egikaritzeko probabilitatearen eta balizko inpaktuaren hasierako ebaluazioa egitea aurreikusten da.

Autoebaluazioaren bost pauso giltzarriak hauek dira:

1. Berriazko iruzur-arriskuaren (arrisku gordina) probabilitatea eta arriskua kuantifikatzea. Dauden edo planeatu diren kontrolen eragina kontuan hartu aurretik dagoen arrisku-mailari dagokio arrisku gordina, denbora-aldi bati aipamena eginez.
2. Arrisku gordina arintzeko egungo arintze-kontrolen (jada badaudenak) ebaluazioa egitea.
3. Arrisku garbiaren ebaluazioa, egungo kontrolen eragina (jada badaudenak) eta haien eraginkortasuna aintzat hartuta. Jada badauden kontrolen eragina eta haien eraginkortasuna kontuan hartu ondorengo arrisku-mailari dagokio arrisku garbia, hau da, adierazten du egoera une honetan den moduan.
4. Berriazko arintze-kontrol gehigarriak definitzea (iruzurraren aurkako neurri eraginkorrak eta proportzionatuak), arrisku garbia arintzeko.
5. Prestaturako arintze-kontrol gehigarrien ondoren, arrisku objektiboaren edo hondar-arriskuaren ebaluazioa. Egungo kontrolak eta prestatutakoak kontuan hartu ondorengo arrisku-mailari dagokio arrisku objektiboa edo hondar-arriskua.

Iruzur-arriskuaren ebaluazio hau aldi behin berrikusiko da, bi urtean behin edo urtero, iruzur-arriskuaren arabera, eta, edonola ere, iruzur-kasuren bat detektatu denean edo prozeduretan edo langileengan aldaketa esanguratsuak daudenean.

A. Interes-gatazkaren, iruzurraren eta ustelkeriaren prebentziorako testa.

Arriskuaren ebaluazio egoki bat kudeaketaren arrazionalizaziorako tresna garrantzitsua da, Batasunaren finantza-interesak babesteari dagokionez, berme nahikoak emanez aldi berean.

Lehenik eta behin, HFP/1030/2021 Aginduen 6.2 artikuluan bigarren paragrafoan jasotakoa betetze aldera, Mankomunitateak “Interes-gatazkaren, iruzurraren eta ustelkeriaren prebentziorako testa” egin du, plan honetan jasotzen diren iruzurraren aurkako zikloko lau arloen funtsezko alderdi desberdinak barnean hartzeko erreferentzia moduan balio izan duen gutxieneko estandarrari dagokiona. Agindu horren 2.4 artikuluan ageri denaren arabera, autoebaluazio hau kontrol-eginkizuna gauzatzearen esparruan egin behar da gutxienez urtean behin plan honen indarraldian. Test hau egitearen eta aldi behin berrikusteari arduraduna iruzurraren aurkako Batzordea da.

Testaren emaitzak “Interes-gatazkaren, iruzurraren eta ustelkeriaren prebentziorako testaren emaitzak” **VII. ERANSKINEAN** jasoko dira.

B.- Iruzur-arriskuaren hasierako ebaluazioa.

Halaber, Iruñerriko Mankomunitateak Batasunaren finantza-interesei kaltea egiteko arriskuaren, egikartzeko probabilitatearen eta balizko inpaktuaren hasierako ebaluazioa egingo du.

Ebaluazio hau bi urtean behin berrikusiko da, eta, edonola ere, iruzur-kasuren bat dagoenean edo prozeduretan edo langileengan aldaketa esanguratsuak daudenean.

Ebaluazio honen eta bera aldi behin berrikusteari arduraduna iruzurraren aurkako Batzordea izango da.

Iruzur-arriskuaren hasierako ebaluaziorako, SEMera eta Iruñerriko Mankomunitatearen errealitatera egokituta, Lan eta Gizarte Ekonomiako Ministerioaren Europako Gizarte Funtsaren Administrazio Unitatearen (UAFSE) “Iruzurraren aurkako arriskuen eta borrokaren ebaluazio-tresna” (“Arriskuen matrizea”) erabiliko da.

Plana ezarri bitartean egiten diren ebaluazio-prozesuetan, eta bai ondoren ere, arriskuen matrize moduan, Europako Gizarte Funtsaren Administrazio Unitatearen (UAFSE) arriskua identifikatzeko eta estaltzeko autoebaluazio-tresna erabiliko da (ex post arriskuen matrizea).

Iruñerriko Mankomunitateak ex ante matrizeetatatik eratorritako emaitzak, eta ex post, egokia bada, erabiliko ditu jada badauden neurrien kontrol- edo egiaztatze-neurri gehigarriak zehazteko, eta bai erreferentzia- eta orientazio-moduan ere, dirulaguntzen eta kontratatze-agirien oinarri arautzaileen gainean egin behar den analisian.

7.2. Detekzioa.

Prebentzio-neurriek ezin dute babes erabateko eta osoa eman iruzurraren aurka, eta, horrenbestez, prebentziotik ihes egiten duten iruzurrezko jokabideak garaiz detektatzeko sistemak behar dira. Hori dela-eta, iruzurraren aurkako estrategia on batek gogoan izan behar du kasuek egoten jarrai dezaketela. Hartara, kasu horietarako, Iruñerriko Mankomunitateak neurri hauek ezarri ditu.

7.2.1. Datu-baseak erabiltzea.

Dokumentazio guztia (barne hartuta interes-gatazkarik ezaren adierazpena) hauen bidez egiaztatu ahal izango da:

- Kanpoko informazioa (adibidez, erakundetik kanpokoak diren pertsonen emandako informazioa, interes-gatazka eragin duen egoerarekin zerikusirik ez dutenak).
- Interes-gatazkarako arrisku handia duten zenbait egoerari buruz egindako egiaztapenak, barneko arrisku-analisan edo bandera gorrietan oinarritutakoak.
- Ausazko kontrolak. Datu-baseak erabiltzea, besteak beste, merkataritza-erregistroak, Dirulaguntzen Base Nazionala (BNDS), kontratazio-tresnak (Sektore Publikoko Kontratuen Plataforma eta Nafarroako Kontratazio Ataria), lizitaziorako tresna propioak, gorabeherak kudeatzekoak, dirulaguntzenak, erregistro publikoak, hala nola Lizitazzaileen eta sektore publikoko enpresa sailkatuan erregistro ofiziala (ROLECE), Nafarroako kontratuen erregistro publikoa, edo datuak aztertze eta arriskuak puntuatzeko tresnak (ARACHNE), aukeren arabera eta proportzionaltasun-printzipioarekin bat eginez.

7.2.2. Bandera gorrien katalogoa edo iruzur-arriskuaren adierazleak.

Bandera gorriak alarma-seinaleak dira, egon litekeen iruzur baten zantzuak. Bandera gorri bat egoteak ez dakar berekin nahitaez iruzurra egotea, baina bai adierazten duela jarduera-alor jakin batek arreta berezia edo apartekoa behar duela balizko iruzur bat baztertzeko edo egiaztatzeke.

Iruñerriko Mankomunitateak arrisku-adierazle batzuk edo bandera gorrien katalogo bat definitu du. Hain zuzen, erakunde betearazlearen esparruan jarraibide edo jokabide ezohikoak edo irregularrak identifikatzeko bidea ematen dute, SEMetik datozen funtsak kudeatzean parte hartzen duten enpleguak alerta-egoeran jartzeko helburuarekin eta, bandera gorri horietakoren bat detektatzen bada, jarraitu beharreko prozedura definitzeko (**VIII. ERANSKINA**. "Arrisku-adierazle posibleak, bandera gorriak").

7.2.3. Bandera gorriak egiaztatzeko zerrenda jarduketak gauzatzean.

SEEParen jarduketak gauzatzeko izapidetzen diren prozeduretan, egokia den egiaztatze-zerrenda betetzearen bidez, dokumentuetan jasota utzi beharko da definitu diren bandera gorri posibleen berrikuspena, hartara, definituta dauden balizko iruzurraren edo ustelkeriaren adierazle guztiei erantzuteko (hori dela-eta, gerta liteke adierazleren bat ez aplikatzea prozeduraren fase batzuetan baina bai beste batzuetan).

Aurretik egindako arrisku-ebaluazioan oinarrituta (**VIII. ERANSKINA**. “Iruzur-arriskuaren hasierako ebaluazioa”), beste aukera batzuen artean, hauek zehaztuko dituen laginketa bat ezarri ahal izango da:

- Berrikuspen hauek aplikatu beharko diren prozedurak, edo
- berrikuspenak une jakin batzuetan bakarrik egitea, edo
- onuradunen kopurua oso handia den dirulaguntzen kontzesioak badaude, egiaztapenak interesdunen lagin batekin lotuta bakarrik egitea.

Edonola ere, egiaztatze-zerrenda betetzea dirulaguntzen oinarri arautzaileak edo kontratazioaren baldintza-agiriak onartzeko faseetan egin beharko da, SEMek finantzatutako proiektuak kudeatu eta haiei jarraipena egiteko arauetan aurreikusten den moduan.

Egiaztatze-zerrendaren eredia plan honetako **IX. ERANSKINEAN** dago, “Bandera gorriak egiaztatzeko zerrenda” izenburua duenean.

7.2.4. Bandera gorria aktibatzea.

Bandera gorri bat aktibatzea dakarren egoera bat detektatzen bada, Iruzurraren aurkako Batzordea jakinaren gainean jarriko da. Batzorde horrek egokia dena hitzartuko du, administrazio-prozeduraren ardura duen organoari komunikatzeari dagokionez, iruzurra edo ustelkeria izan daitekeen jokabide baten berri izan den administrazio-prozedura dela-eta, edo, egokia bada, amaitutzat jotzeari dagokionez.

7.2.5. Iruzur-susmo posibleak salatzeko kanala, Infofraude.

Iruñerriko Mankomunitatearen kexa eta salaketetarako postontzia erabilgarri ez dagoen bitartean, salaketarako beste kanal bat identifikatuko da. Haren bidez, hain zuzen, edozein pertsonak jakinarazi ahal izango ditu iruzur-susmoak eta, alderdi hauei dagokienez, detektatu dituen ustezko irregulartasunak.

Alde horretatik, Erakundeko langileei jakinaraziko zaie Iruzurraren aurkako Koordinazio Zerbitzu Nazionalak (SNCA) bideratutako salaketa-kanal bat (Infofraude) dagoela, Europako funtsak ukitzen dituzten iruzurrei eta irregulartasunei buruzko informazioa komunikatzeko. Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoari buruzko berriazko atal bat du, apirilaren 6ko 1/2017 Jakinarazpenean jasotakoa aintzat hartuta, Europar Batasunetik heldu diren funtsen kontura osorik edo zati batean finantzatutako proiektu edo eragiketekin lotuta iruzurtzat edo irregulartasuntzat har daitezkeen gertakarien berri duten pertsonak jarduteko izan behar duten modua zehazteko.

Jakinarazpen horren arabera, “Europar Batasunaren finantza-interesen kontrako iruzurraren aurkako borrokan eskumenak dituzten agintariei edozein informazio garrantzitsu eta nabarmen bidaltzea errazteko helburuarekin, eta Iruzurraren aurkako Koordinazio Zerbitzu Nazionalari arlo horretan dagozkion koordinazio-eginkizunen esparruan, Europar Batasunetik heldu diren funtsen kontura osorik edo zati batean finantzatutako proiektu edo eragiketekin lotuta iruzurtzat edo irregulartasuntzat har daitezkeen gertakarien berri duen edozein pertsonak gertakari horien berri eman ahal izango dio Iruzurraren aurkako Koordinazio Zerbitzu Nazionalari bitarteko elektronikoen bidez, zerbitzu horrek webgune honetan helburu horretarako egokitutako kanalaren bitartez:

<https://www.igae.pap.hacienda.gob.es/sitios/igae/es-ES/paginas/denan.aspx>

Halaber, eta salbuespen moduan ezin badira erabili bitarteko elektronikoen horiek, gertakariak paperezko euskarriaren bidez jarri ahal izango dira Iruzurraren aurkako Koordinazio Zerbitzu Nazionalaren esku, dokumentuak paperezko euskarrian igorrita”.

Infraude salaketetarako kanalerako lotura kaleratuta dago Iruñerriko Mankomunitatearen webgunean.

7.2.6. – Halaber, Iruzurraren aurkako Neurrien Planaren esparruko jarduketei dagozkien salaketak jasotzeko **berariazko postontzi bat** jarriko da martxan. Bereziki gaitutako langileek ikertuko dituzte egindako salaketak (EUROPAKO PARLAMENTUAREN ETA KONTSEILUAREN 2019/1937 (EB) ZUZENTARAUUA, 2019ko urriaren 23koa, Batasuneko Zuzenbidearen arau-hausteei buruzko informazioa ematen duten pertsonak babesteari buruzkoa, 8. artikulua).

7.3. Zuzenketa- eta jazarpen-neurriak.

Iruzur posible bat detektatzean jarraitu beharreko prozedura

HFP/1030/2021 Aginduaren, irailaren 29koaren, 6.6 artikulua iruzur posible bat edo haren susmo funtsatua detektatzen bada aplikatu beharreko komunikazio-prozedura eta zuzentzekoa aurreikusten du.

Alde horretatik, Iruzurraren aurkako Batzordeak edo Mankomunitateko beste organo batek salaketetarako kanalaren bidez aurkeztutako iruzur-sumo baten berri duenean, delako gai horretan eskumena duen arloak beharrezkoa den informazio guztia bilduko du eta bai eskuragarri dauden ebidentziak ere, kasuaren ondorengo analisia errazteko helburuarekin. “Bandera gorri” izeneko zenbait adierazle agertzea iruzurra dagoela zehazteko edo erabakitzeke irizpide nagusietako bat izango da.

Iruzur posible bat detektatzeak, edo haren susmo funtsatuak, berekin ekarriko du hura detektatzen den prozedura jakina etetea organo eskudunak eta, ahalik eta azkarrena, Iruzurraren aurkako Batzordeak neurri hauek hartuko ditu:

- Egoera horren berri ematea ahalik eta azkarrena interesa izan dezaketen agintariei eta jarduketak egitean inplikaturik dauden erakundeei.

- Iruzurraren eraginaren ebaluazioa eta sistemiko edo puntual gisa kalifikatzea. (Iruzur sistemikotzat hartuko da iruzurra modu errepikakorrean eta antzeko prozeduretan egin ahal izan dela adierazten duten ebidentziak aurkitzen direnean. Iruzur puntualtzat joko da gertakari bakana dela ikusten denean, beste batzuetan errepikatu ez dena).
- Iruzur horren pean egon ahal izan diren proiektu guztiak berrikustea.
- Egokia bada, detektatutako gorabehera identifikatzen den espediente guztietatik komunitate-finantzaketa kentzeko eskatzea.
- Detektatutako ahulezia konpontzeko hartu beharreko neurriak jakinaraztea unitate betearazleei, aurkitutako gorabehera horiek berriro ere ez errepikatzeko.

JAZARPEN-NEURRIAK

Ustezko iruzur bat detektatuta, ahalik eta azkarrena, iruzurraren aurkako Batzordeko lehendakariak hauek egin beharko ditu:

- Izandako gertakariak eta hartutako neurriak jakinarazi beharko dizkio agintaritza arduradunari, eta agintaritza horrek egoki jotzen duen informazio gehigarria eskatu ahal izango du, jarraipena egiteari eta Kontrol Agintaritzari komunikatzeari begira.
- Izandako gertakariak jakinarazi beharko dizkie eskumenak dituzten agintaritzei. Haien artean dago iruzurraren aurkako Koordinazio Zerbitzu Nazionala (SNCA), iruzurraren kontra Europar Batasunaren finantza-interesak babestera bideratutako ekintzak koordinatzeko organo gisa, OLAF Iruzurraren aurkako Borrokarako Europako Bulegoarekin elkarlanean.
- Gertakariak zuzenean jakinarazi beharko dizkio OLAFi, haren kanalaren bidez (plan honetako 7.2 atalean aipatutakoa).
- Egokia bada, gertakariak Fiskaltzan edo eskumenak dituzten Epaitegi eta Auzitegietan salatu beharko ditu.

Iruzurrezkoa izan daitekeen edo halakoa dela egiaztatuta dagoen kasu baten aurrean, iruzurtzat edo ustelkeriatzat jotzekoa den jokabide baten berri dagoen administrazio-prozeduraren arduradunak ezkutuko informazioko prozedura bat izapidetuko du. Prozedura horrek berekin ekarriko du delako kasuaren analisi zehatza, eta bertan jarduketa, proba eta hartu beharreko ebazpen guztiak dokumentuetan jasoko dira.

39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 55. artikuluan jasotzen duen moduan, prozedura hau aurretiazko pausoa da, egokia bada, zehapen-prozedura bat abiaraztea erabakitzeko, diziplinazko espedienteak goizegi abiaraztea saihesteko, gutxieneko maila batean errealitatea salatutako gertakariekin kontrastatu gabe.

Ezkutuko informazioa ez da diziplinazko espedientean sartuko; izan ere, bere xedea soil-soilik izango da judiziozko elementuak ematea organo eskudunari, espedientea abiarazteko edo ez egiteko erabakia funtsatzeko.

Ezkutuko informazioaren prozesua amaitu ondoren, erabakitzen den kasuetan, diziplinazko espedientea abiaraziko zaio ustezko arau-hausleari. Organo eskudunek izapidetuko dute, diziplinazko erregimeneko gaian araudiak adierazten duenaren arabera.

Kontrakoa adierazten duen xedapen normatiborik badago izan ezik, prozeduran zehar informazioa emango zaio Iruzzurraren aurkako Batzordeari egoeraren gainean, haren jarraipenean egindako jarduketek gainean eta hartutako erabakiaren gainean.

Informazioa emandako agintaritzak eskudunetakoren baten erantzuna jasoz gero, aintzat hartuko dira jarraibideak, neurriak edo haiek aurkeztutako gomendioak.

Gainera, egokia denean, bidegabeki jabetu diren funtsak berreskuratzea izapidetuko da, edo ustezko iruzur edo ustelkeria batekin lotu direnak. Sailak egokia den dirua itzuli beharko du (38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzko lege orokorra, 37. artikulua).

8.- PLANAREN PUBLIZITATEA, JARRAIPENA ETA EGUNERATZEA

8.1. PUBLIZITATEA ETA KOMUNIKAZIOA.

Plan hau Iruñerriko Mankomunitatearen Gardentasun Atariko berariazko atal batean kaleratuko da, eta langile guztien artean egingo da bere *publizitatea mezu elektronikoen eta intranetean argitaratzearen* bidez.

Iruñerriko Mankomunitatearen barnean, publizitate horren arduraduna Iruzzurraren aurkako Batzordea izango da.

INP hau gauzatzearekin lotutako komunikazio-jarduketek Espainiako Erresumaren SEEParen logotipo ofiziala hartuko dute barne.

Beste logotipo batekin batera erakusten denean, Europar Batasunaren ikurra beste logotipoak bezain nabarmen eta ikusgarri erakutsi beharko da gutxienez. Ikurrak desberdin eta bereiz egon behar du, eta ezin da aldatu ikusteko beste marka batzuk, markak edo testua gehituta. Ikurraz gain, ezin izango da erabili beste identitate bisualik edo logotiporik, EBren babesa nabarmentzeko.

8.2. PLANAREN JARRAIPENA ETA EGUNERATZEA.

Plan honetan, betetze-maila ebaluatu egingo da eta bai proposatutako neurrien egokitzea ere, eta, beraz, horrek ahalbidetuko du komenigarriak diren aldaketak sartzea.

Iruzzurraren aurkako Batzardea izango da plana berrikusi eta eguneratzearen arduraduna, eta, gutxienez, egoera hauetakoren bat gertatzen den unean egin beharko da:

- Unitate organikoei izendatutako eginkizunak aldatzea.
- Iruzur-arriskua izan dezaketen egoeren zerrenda eguneratzea.
- Arrisku-egoeren gainean iruzur potentziala arintzeko kontrol berriak diseinatu edo ezartzea.
- Iruzzurraren helburu izan daitezkeen beste alor batzuk identifikatzea, besteak beste, intentsitate handikoak izan daitezkeenak, aurrekontu handikoak, eskatzaileak justifikatu beharreko baldintza askokoak, kontrol konplexukoak...
- Interes-gatazka posibleak identifikatzea.
- Auditoria publikoko operazio batean emandako gomendio nagusien eta ertainen emaitza.
- Europako Batzardearen edo, egokia bada, Europako Kontuen Auzitegiaren auditorien emaitzak.
- Aurretik detektatutako iruzur-kasuak.
- Araudi berriak, instrukzioak, aplikazio-orientazioak edo -gidak.

Nolanahi ere, INP hau bi urteko gehieneko epean berrikusi beharko da, eta barne hartu beharko ditu aldaketa normatiboak eta auditoria-jarduketa batean formulatutako gomendio txikiagoak.

INP honen bertsio bakoitzari 8.1. atalean, "Publizitatea eta komunikazioa" izenburua duenean, aurreikusitako publizitatea egingo zaio.

I. ERANSKINA. IRUZURRAREN AURKAKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

Iruñerriko Mankomunitatea Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren erakunde betearazlea da, 1030/2021 Aginduan, irailaren 29koan, xedatuta dagoenaren arabera, haren bidez eratzen baita Suspertze eta Erresilientzia Plana kudeatzeko sistema. Izan ere, bere eskumenen esparruan, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren barnean dauden erreforma eta inbertsioen proiektuak edo azpiproiektuak (*egokia dena*) gauzatzea baitagokio.

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021/241 (EB) Araudiak, 2021eko otsailaren 12koak, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzen duenak, jasotzen du estatu kideak behartuta daudela Batasunaren finantza-interesak babesteko neurri egokiak aplikatzera eta zaintzera Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoak finantzatutako neurriekin lotutako funtsak erabiltzea Batasunean eta nazioan aplikagarria den zuzenbidearen arabera izatea, bereziki, iruzurraren, ustelkeriaren eta interes-gatazken prebentzioari, detekzioari eta zuzenketari dagokionez.

Arau juridiko, etiko eta moralak betetzean estandar zorrotzenak betetzeko hartuta duen konpromisoa adierazi nahi du Iruñerriko Mankomunitateak, eta osotasun-, objektibitate-zintzotasun-printzipio zorrotzenak bere egiten dituela, hartara, erakundearekin harremana duten agente guztiek uler dezaten iruzurraren eta ustelkeriaren kontrako erakunde dela, iruzurraren eta ustelkeriaren moldeetako edozeinetan.

Iruñerriko Mankomunitateko langileek, enplegatu publikoak diren aldetik, konpromiso hau hartzen dute beren gain, besteak beste zeregin hauek izanda: *“arretaz bete beharko dituzte esleituta dituzten zereginak, eta interes orokorrak zaindu beharko dituzte Konstituzioa eta gainerako ordenamendu juridikoa betez; halaber, honako printzipio hauen arabera ere jardun beharko dute: objektibotasuna, osotasuna, neutraltasuna, erantzukizuna, inpartzialtasuna, konfidentzialtasuna, zerbitzu publikoaren aldeko dedikazioa, gardentasuna, eredugarritasuna, austeritatea, irisgarritasuna, eraginkortasuna, zintzotasuna, kulturaren eta ingurumenaren sustapena, eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunarekiko errespetua”* (5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena, 52. artikulua).

Iruzurraren aurkako neurrien plan bat egin da, iruzurraren eta ustelkeriaren aurkako borrokarako neurri eraginkorrak eta proportzionatuak jartzeko abian, iruzur-arriskua kudeatzeko planteamendu proaktibo, egituratu eta berariazko batean oinarritutakoa. Hain zuzen, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren jarduketek eragin duten gastua interes-gatazkatik, iruzurretik eta ustelkeriatik libre dagoen bermeak emango ditu. Era gehigarrian, iruzurtzat eta ustelkeriatzat har daitezkeen egoerak prebenitu, detektatu eta salatzeko prozedurak daude, eta bai haien jarraipena egitekoak ere.



Politika horren helburua da erakundearen barruan iruzurrezko jarduera oro uxatuko duen kultura sustatzea, jarduera horiek prebenitu eta detektatzea erraztuko duena, kasu horiek kudeatzeko prozedura eraginkorrak garatzea sustatuz.

Azken batean, Iruñerriko Mankomunitateak iruzurraren eta ustelkeriaren aurrean tolerantziarik ezeko politika dauka, eta kontrol-sistema sendoa ezarri du, ahal den neurrian, iruzur-egintzak prebenitu eta detektatzeko eta, gertatzen badira, haien inpaktua zuzentzeko bereziki diseinatutakoa.

Data eta sinadura

II. ERANSKINA. INTERES GATAZKARIK EZAREN ADIERAZPENA (IGEA)

ESPEDIENTEA:.....

Goian aipatutako espedientean inpartzialtasuna bermatze aldera, behean sinatzen dutenek, espedientea prestatzeko eta izapidetzeko prozesuaren parte-hartzaile gisa, honako hau adierazten dute:

Lehenbizi.– Jarraian adierazita dagoenaren berri badutela:

1. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren uztailaren 18ko 2018/1046 (EB, Euratom) 61.3 artikulua (“Interes-gatazka”) ezartzen duenez, “interes-gatazka egongo da, baldin eta funtzioen jardun inpartzial eta objektiboa arriskuan jartzen bada familiari, harreman afektiboei, kidesun politiko edo nazionalari, interes ekonomikoari edo interes pertsonalari zuzenean edo zeharka lotutako arrazoen ondorioz”.

2. 2/2018 Foru Legeak, apirilaren 13koak, Kontratu publikoei buruzkoak, 52. artikuluan (“Interes-gatazka ebaztea”) edozein lehia-distortsio ekiditeko xedea du, prozeduraren gardentasuna bermatzekoa eta hautagai eta lizitatzailerik guztien tratu-berdintasuna ziurtatzekoa.

3. Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikulua (“Abstenitzea”) xedatzen duenez, “Administrazioetako agintari edo langileak, hurrengo zenbakian aipaturiko egoeretakoren batean daudenean, prozeduran esku hartetik abstenituko dira”:

- a) Interes pertsonala izatea aztertuko den gaian edo besteren batean, baldin eta azken horren ebazpenak lehenari eragin badiezaioke; sozietate edo entitate interesdunen bateko administratzaile izatea, edo interesdunen batekin ebatzi gabeko auziren bat izatea.
- b) Ezkontza-lotura edo antzeko egitatezko egoera izatea, eta ahaidetasuna izatea, laugarren gradurainoko odolkidetasunezkoa edo bigarren gradurainoko ezkontza-ahaidetasunezkoa, interesdunetako edozeinekin, entitate edo sozietate interesdunen bateko administratzaileekin, bai eta prozeduran esku hartzen duten aholkulari, legezko ordezkari edo mandatariekin ere, edo haien bulego berekoa izatea edo haiekin elkartuta egotea aholkularitza, ordezkari edo mandataritzarako.
- c) Aurreko atalean aipaturiko pertsonetakoren batekin adiskidetasun mina edo ikusiezin nabarmena izatea.
- d) Dagokion prozeduran aditu edo lekuko gisa parte hartu izana.
- e) Gaian zuzeneko interesa duen pertsona fisiko edo juridikoren batekin zerbitzu-harremana izatea edo pertsona horri, azken bi urteetan, zerbitzu profesionalak eskaini izana, edozein motatakoak eta edozein baldintza eta tokitan”.

Bigarrenik.– Ez daudela, Europar Batasunaren Finantza Araudiaren 61.3 artikuluan adierazitakoaren arabera, interes-gatazkatzat jo daitekeen inolako egoeratan, eta ez dutela, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23.2 artikuluaaren arabera, lizitazio-/emakida-prozedurari eragin diezaiokeen inolako abstenitze-arrazoirik.

Hirugarrenik.– Konpromisoa hartzen dutela, luze gabe, horrelako egoeraren bat eragin dezakeen interes-gatazka edo abstentzio-kausa oro kontratazio-organoari/ebaluazio-batzordeari jakinarazteko.

Laugarrenik.– Badakitela interes-gatazkarik ez dagoela dioen adierazpen bat faltsua dela frogatuz gero, aplikatzekoa den araudiak ezartzen dituen diziiplina-ondorioak, ondorio administratiboak eta/edo judizialak ezarriko direla.

Eta hala jasota gera dadin, adierazpen hau sinatu dute.

(Data eta sinadura, izen osoa eta NANA)

III. ERANSKINA. SEEP-AREN JARDUKETAK **GAUZATZEAREKIN LOTUTAKO KONPROMISO-** **ADIERAZPENA**

..... jaunak/andreak,
(NANA:.....),
erakundearen titular/kontseilari ordezkari/kudeatzaile den aldetik (IFZ:
.....; helbide fiskala:
.....),

SEEPetik datozen baliabideekin finantzaturako laguntzen organo arduraduna/organokudeatzailea/onuraduna den aldetik / enkarguaren kontratista/azpikontratista/erakunde hartzaile gisa parte hartzen duen aldetik, XX «..... » osagaien zehaztutako helburuak lortzeko beharrezkoak diren jarduketaren garapenean, adierazten du ordezkatzeko duen pertsonak/erakundeak konpromisoa duela arau juridiko, etiko eta moralei lotutako estandar zorrotzenak ezarri eta betetzeko. Horretarako, iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkak prebenitzeko eta detektatzeko beharrezkoak diren neurriak hartuko ditu eta, hala dagokionean, dagokion agintaritzari emango dio antzemandako arau-hausteen berri.

Horrez gain, SEEParen edukia kontuan hartuta, konpromisoa hartzen du ekonomia zirkularraren printzipioak errespetatzeko eta Planaren esparruan gauzatzen diren jarduketetan ingurumen-inpaktu negatibo adierazgarriak saihesteko («DNSH»; ingelesez «*do no significant harm*» siglak). Era berean, adierazten du ez duela finantzaketa bikoitzik eta, berari dagokionez, ez duela Estatuko laguntzen araubidearekin bateraezintasun-arriskurik.

....., 202X(e)koaren XX(a).

Stua:

Kargua:

IV. ERANSKINA. DATUAK LAGATZEKO ETA TRATATZEKO ADIERAZPENA, SEEP-AREN JARDUKETAK GAUZATZEAREKIN LOTUTA

..... jaunak/andreak,
(NANA:.....),
erakundearen titular/kontseilari ordezkari/kudeatzaile den aldetik (IFZ:
.....; helbide fiskala:
.....),

SEEPetik datozen baliabideekin finantzatutako laguntzen onuradunak / XX «..... » osagaien zehaztutako helburuak lortzeko beharrezkoak diren jardueren garapenean kontratista/azpikontratista gisa parte hartzen duenak, adierazten du ezagutu egiten duela aplikatzekoa den araudia, bereziki Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241(EB) Araudiaren (Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzen duena) 22. artikuluko honako atal hauek:

1. 2. ataleko d) letra: «Suspertze eta Erresilientzia Planaren esparruan erreformak eta inbertsio-proiektuak gauzatzeko neurriei dagokienez, funtsen erabilera ikuskatzeko eta kontrolatzeko, datu-kategoria bateratu hauek biltzea, bilaketak egiteko aukera emango duen formatu elektronikoa eta datu-base bakar batean:

i. Funtsen azken hartzailearen izena.

ii. Kontratatoren eta azpikontratatoren izena, funtsen azken hartzailea botere esleitzaila denean, kontratazio publikoaren arloko Batasuneko edo nazioko zuzenbidearen arabera.

iii. Funtsen hartzailearen edo kontratatoren benetako titularren izen-abizenak eta jaiotze-datak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2015/849 (EB) Zuzentarauaren (26) 3. artikuluko 6. puntuan definitutakoaren arabera.

iv. Suspertze eta Erresilientzia Planaren esparruan erreformak eta inbertsio-proiektuak gauzatzeko neurrien zerrenda, neurri horien finantzaketa publikoaren zenbateko osoa zehaztuta, eta Mekanismoaren eta Batasuneko beste funts batzuen esparruan ordaindutako funtsen zenbatekoa adierazita».

2. 3. atala: «Estatu kideek eta Batzordeak soilik tratatuko dituzte artikuluko honetako 2.d) atalean aipatutako datu pertsonalak, betiere 15.2 eta 23.1 artikuluetan aipatutako akordioak aplikatzeko erabili diren funtsen aurrekontu-kudeaketa eta kontrol-prozedurak onartzeko beharrezko ikuskaritzak irauten duen bitartean, eta haren

xedeetarako. Batzordearen kudeaketa onartzeko prozeduraren esparruan, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuen 319. artikuluekin bat etorritik, Mekanismoaren gaineko txostenak aurkeztu beharko dira; batetik, Finantza Erregelamenduen 247. artikuluan aipatzen den finantza-informazioaren eta kontu-emate integratuaren esparruan eta, bestetik, bereziki kudeaketaren eta errendimenduen urteko txostenean (bereizita)».

Azaldutako esparru juridikoaren arabera, adierazten du datuak lagatzeko eta tratatzeko aukera duela, aipatutako artikuluetan berariaz zerrendatutako helburuetarako. Eta hala jasota gera dadin, baimen hau sinatu da.

....., 202....(e)koaren XX(a)a

Stua. Kargua:

V. ERANSKINA. ENPLEGATU PUBLIKOEN JOKABIDE-KODEA

Iruzzurrari aurrea hartzera bideratuta dauden neurrien artean, Iruñerriko Mankomunitateko eta haren sektore publikoko enplegatu publikoen Jokabide Kodeari zabalkundea egitea dago. Izan ere, iruzurraren gaian balioak eta jokabide-jarraibideak helarazteko funtsezko tresna da, eta eredu izan behar duten eta enplegatu publikoen jarduna arautu behar duten printzipioak biltzen ditu.

Iruñerriko Mankomunitateko eta haren sektore publikoko langileen eguneroko jardunak aplikagarria den araudiaren arabera egin behar eta printzipio etikoak betetzen direla erakutsi behar du: 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena; 251/1993 Foru Dekretu Legegilea, abuztuaren 30ekoa, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileriaren Estatutuaren Testu Birbildua onesten duena; eta, era osagarrian, 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena.

Enplegatu publikoen eginbeharrak. Jokabide-kodea.

Langile publikoek arretaz bete beharko dituzte esleituta dituzten zereginak, eta interes orokorrak zaindu beharko dituzte Konstituzioa eta gainerako ordenamendu juridikoa betez; halaber, honako printzipio hauen arabera ere jardun beharko dute: objektibotasuna, osotasuna, neutraltasuna, erantzukizuna, inpartzialtasuna, konfidentzialtasuna, zerbitzu publikoaren aldeko dedikazioa, gardentasuna, eredugarritasuna, austeritatea, irisgarritasuna, eraginkortasuna, zintzotasuna, kulturaren eta ingurumenaren sustapena, eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunarekiko errespetua. Hurrengo artikuluetan araututako jokabide- eta etika-printzipioek eraturako langile publikoen Jokabide Kodearen inspirazioa dira horiek. Kapitulu honetan ezarrita dauden printzipioak eta arauak izango dira oinarri enplegatu publikoen diziplina-araubidea interpretatu eta aplikatzeko orduan.

Printzipio etikoak.

1. Enplegatu publikoek Konstituzioa eta ordenamendu juridikoa osatzen duten gainerako arauak errespetatuko dituzte
2. Enplegatu publikoen jardunak herritarren interes orokorrak betetzea izango du xede eta inpartzialtasuna eta guztiontzako interesa lortzera doazen jarraibide objektiboak izango ditu oinarri, printzipio horren aurkakoak izan daitezkeen jokabide guztiak erabat alde batera utzita, pertsonalak, familiartekoak, korporaziokoak nahiz bezeroei dagozkienak izan.

3. Beren jarduna leialtasunaren eta fede onaren printzipioen araberakoa izango da, bai lanean diharduteneko administrazioarekin, baita nagusi, lankide, menpeko eta herritarrekin ere.

4. Enplegatu publikoen jokabideak oinarritzko eskubideen eta askatasun publikoen errespetua izango du oinarri, eta saihestu egingo ditu era guztietako bereizkeriak, jaiotza, arraza edo etnia, generoa, sexua edo orientazio sexuala, erlijioa edo sinesmenak, iritzia, desgaitasuna, adina edo bestelako egoera edo inguruabar pertsonal nahiz sozialak direla-eta, sor litezkeenak.

5. Interes pertsonala duten gaietan abstenitu egingo dira eta, lanpostu publikoaren interesetik gatazka ekartzeko arriskua izan badezakete, jardun pribatu eta gainerako interes guztietan ere bai.

6. Enplegatu publikoek ez dute betebeharrak ekonomikorik hartuko, eta ez dute pertsona nahiz erakundeekin parte hartuko finantza-eragiketetan, ondarezko betebeharretan edo negozio juridikoetan horrek lanpostu publikoaren betebeharretikiko interes-gatazka sortzeko arriskua ekar badezake.

7. Enplegatu publikoek ez dute pertsona fisiko nahiz erakunde pribatuengandik mesede-traturik onartuko, ezta arrazoirik gabeko pribilegioa edo abantaila dakarren egoerarik ere.

8. Eraginkortasun-, ekonomia- eta eragimen-printzipioen arabera jardungo dute; eta interes orokorraren alde joka dadin eta erakundearen helburuak bete daitezzen zainduko dute.

9. Enplegatu publikoek ezin dute, tartean bidezko arrazoirik izan gabe, administrazio-prozedurak edo tramiteak azkartzeko edo ebazteko eraginik izan; are gutxiago, horrek pribilegioa badakar kargu publikoetako titularren alde edo beren familiartekoen edo inguru sozialaren alde, edo kaltea badakar hirugarren batzuen interesen aurka.

10. Enplegatu publikoek arretaz beteko dituzte atazak, dagozkienak nahiz agindutakoak, eta, hala dagokienez, epe barruan ebatziko dituzte eskumenean dituzten prozedurak eta espedienteak.

11. Zerbitzu publikoaren aldeko dedikazio-printzipioari jarraituz beteko dituzte dagozkien eskurantzak, eta saihestu egingo dituzte, printzipio horren aurkako jokabideez gain, zerbitzu publikoaren jardunean zaindu beharreko neutraltasuna kolokan jar dezaketenean jokabide guztiak.

12. Sekretupean gordeko dituzte sailkatuta dauden gaiak edo legez zabalkundea debekatuta dutenak, eta behar besteko zuhurtasunez jokatuko dute beren kargua dela-eta dakizkiten gaiei buruz; eta eskuratu duten informazio hori ezin izango dute erabili ez beren mesederako, ez hirugarren batzuen erako, ezta interes publikoaren kalterako ere.

Jokabide-printzipioak.

1. Arretaz eta begirunez tratatuko dituzte herritarrak, beren nagusiak eta gainerako enplegatu publikoak ere.
2. Enplegatu publikoek, lanpostuari dagozkion atazak betetzerakoan, zuhurtasunez eta arretatsu jokatu dute, eta ezarritako lanaldia eta ordutegia beteko dute.
3. Nagusiek emandako jarraibide eta agindu profesionalei men egin behar diete, argi eta garbi ordenamendu juridikoaren aurkakoak ez badira behintzat; horrelakoetan, berehala emango diote horren berri dagokion ikuskaritza-organoari.
4. Ezagutzeko eskubidea duten gaiei eta arloei buruzko informazioa emango diete herritarrei, eta laguntza emango diete beren eskubideak baliatu eta betebeharrak bete ditzaten.
5. Enplegatu publikoek baliabide eta ondasun publikoak austeritatez administratuko dituzte, eta ez dituzte erabiliko norberaren edo hurbilekoen mesederako. Baliabide eta ondasun horiek zaintzeko eginbeharra ere izango dute.
6. Ez da abantaila-egoera dakarren inolako oparirik, mesederik edo zerbitzurik onartuko, gizartean ohituraz eta kortesiaz ohi direnez aparte, betiere, Zigor Kodean ezarritakoari kalte egin gabe.
7. Dokumentuen ziurtasuna eta iraupena bermatuko dituzte, agiri horiek ondorengo arduradunei eman eta eskualdatu ahal izateko.
8. Eguneratuta izango dute beren prestakuntza eta kualifikazioa.
9. Laneko osasunari eta segurtasunari buruzko arauak beteko dituzte.
10. Beren nagusien edo organo eskudunen jakinaren gainean jarriko dituzte, zerbitzuan diharduteneko unitatearen eginkizunak hobeto betetzeko beren ustez egoki diren proposamenak. Horretarako, enplegatu publikoek eta herritarrek egindako proposamenak, zeinak zerbitzuaren eraginkortasuna hobetzeko baitira, jasoko dituen instantzia eskumendun egokia sortzea aurreikus daiteke.
11. Herritarrari berak eskatutako hizkuntzan erantzungo zaiola bermatu behar dute, hizkuntza hori lurralde horretan ofiziala bada.

Legegintza-aipamena

Espainiako ordenamendu juridikoak hainbat arau jasotzen ditu, beren eginkizunak gauzatzean men egin beharrekoak, bai Gobernuak kideek eta Administrazioak goi-karguek, bai eta enplegatu publikoak direnek ere.

Arau horien laburpenak daude jarraian, beren eginkizunak gauzatzean jokabideari dagokionez garrantzi handieneko artikulatuak dokumentu bakar batean bilduta gelditzeko, alde batera utzirik arau horiek beren osotasunean aplikagarriak izatea eta alde batera utzirik gai horretan indarrean dauden gainerako arauen aplikagarritasuna, dokumentu honetan jasota ez badaude ere.

1. 19/2013 Legea, abenduaren 9koa, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa.

2. 3/2015 Legea, martxoaren 30ekoa, Estatuko Administrazio Orokorreko goi-karguan aritzea arautzen duena.
3. 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena.
4. 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena.
5. 53/1984 Legea, abenduaren 26koa, Herri Administrazioen Zerbitzuko Langileen Bateriaezintasunari buruzkoa (azken aldaketa: 2015eko azarokoa).
6. 251/1993 Foru Dekretu Legegilea, abuztuaren 30ekoa, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileriaren Estatutuaren Testu Birbildua onesten duena.
7. 5/2018 Foru Legea, maiatzaren 17koa, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzkoa.

1. 19/2013 Legea, abenduaren 9koa, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa. Laburpena.

II. tituluak lege-maila ematen die Gobernu kideen eta Estatuko, autonomia-erkidegoetako eta toki-erakundeetako administrazio goi-karguen eta parekoen zereginak zuzendu behar dituzten printzipio etikoei eta jardura-printzipioei. Halaber, argitu eta gogortu egiten da horiei aplikatu beharreko zehapen-erregimena, duten erantzukizunarekin parekatzeko.

Sistema honen xedea da eraginkortasunaren, austeritatearen, inpartzialtasunaren eta, batez ere, arduraren printzipioen arabera jardungo diren zerbitzari publikoak edukitzea herritarrek. Xede hori betetzeko, legeak hiru esparrutan banatutako zehapen-erregimena ezartzen du, haietako bat interes-gatazkaren arloko arau-hausteei dagokiena.

II. Titulua. Gobernu ona

25. artikulua. Aplikazio-eremua.

1. Estatuaren Administrazio Orokorren esparruan, honako hauei aplikatuko zaizkie titulu honetako xedapenak: gobernu kideei, estatu-idazkariei eta Estatuko Administrazio Orokorreko eta Estatuko sektore publikoko erakundeetako gainontzeko goi-karguei –diren erakundeok zuzenbide publiko edo pribatukoak, Administrazio Orokorri lotutakoak edo haren mendekoak–.

Horretarako, goi-kargutzat joko dira interes-gatazken arloko araudia aplikatuz halakotzat hartzen direnak.

2. Titulu hau aplikatuko zaie arlo honetan aplikatzekoa den autonomia-erkidegoko edo tokiko araudiarekin bat etorritik goi-kargutzat hartzen diren goi-karguei edo parekoei, toki-erakundeetako gobernu-batzarretako kideak barne.

3. Titulu honetan jasotako xedapenak aurreko paragrafoetan aipatutako subjektuei aplikatzeak ez dio, ezein kasutan, haiek izan dezaketen hautetsi izaerari eragingo.

26. artikulua. Gobernu onaren printzipioak.

1. Titulu honen aplikazio-eremuan sartzen diren pertsonak, beren funtzioak betetzean, Espainiako Konstituzioan eta gainontzeko ordenamendu juridikoan xedatutakoa beteko dute, eta oinarrizko eskubideen eta askatasun publikoen errespetua bultzatuko dute.

2. Era berean, honako printzipio orokor hauek egokituko dute beren jardura:

a) Printzipio orokorrak:

1. Gardentasunez jokatu behar dute gai publikoak kudeatzean, eraginkortasun, ekonomia eta efizientzia printzipioekin bat etorritik eta interes orokorri erantzuteko helburuarekin.

2. Zerbitzu publikoaz arduratuz beteko dituzte beren eginkizunak, printzipio horien kontra doan edozein jokabide saihestuz.

3. Inpartzialtasun printzipioa errespetatu behar dute, eta, beraz, interes partikular ororen aurrean, irizpide independentea eta interes horrez bestekoa izango dute.

4. Beren eginkizunak betetzean, berdintasunezko eta inolako diskriminaziorik gabeko tratua ziurtatuko dute.
5. Behar besteko arretaz jokatu dute beren betebeharra betetzean, eta kalitatea bultzatuko dute zerbitzu publikoak ematean.
6. Jokabide duina izango dute, eta herritarrak arreta bereziz tratatuko dituzte.
7. Beren erabaki eta jardueren eta zuzentzen dituzten organismoen erabaki eta jardueren erantzukizuna hartuko dute beren gain, hartara eragotzi gabe legez eska dakizkiekeen beste batzuk.

b) Jarduteko printzipioak:

1. Dediakzio osoz eta bateraezintasunak eta interes-gatazkak arautzeko araudia erabat errespetatuz beteko dute beren zeregina.
2. Beren eskumenak betetzean jakin dituzten egitate edo informazioei dagokienez, behar den zuhurtziaz jokatu dute.
3. Arauz kanpoko jokabideren baten berri izanez gero, eskumena duten organoek jakinaraziko diete.
4. Boterea zertarako jaso duten, horretarako baino ez dituzte gauzatuko indarrean den araudiak ematen dizkieten botereak, eta interes publikoa edo administrazioen ondarea arriskuan jar dezakeen ekintzak saihestuko dituzte.
5. Ez dira beren eginkizunekin bateraezinak diren egoera, jarduera edo interesetan inplikatu, eta ez dute esku hartuko, baldin eta tartean beren objektibotasunari eragin diezaiokkeen kausaren bat badago.
6. Ez dute berentzat oparirik onartuko, baldin eta opariok ohiko erabilera edo erabilera soziala edo kortesiazkoa gairiditzen badute, eta ez dute onartuko abantaila-egoeraren batean eskainitako zerbitzurik edo mesederik, baldin eta horrek baldintzatu egin baditzake beren eginkizunak betetzeko orduan. Garrantzi instituzional handiagoa duten oparien kasuan, dagokion administrazio publikoaren ondareari gehituko zaizkio.
7. Gardentasunez beteko dituzte beren eginkizunak.
8. Baliabide publikoak behar bezala kudeatu, babestu eta gordeko dituzte, eta ezin izango dituzte erabili aplikatzekoa den araudiak onartzen dituen estatik kanpo dauden jardueretarako.
9. Ez dute Administrazioan daukaten posizioa erabiliko abantaila pertsonalak edo materialak lortzeko.
3. Artikulu honetan ezarritako printzipioei jarraituz interpretatu eta aplikatuko da titulu honetan araututako zehapen-araubidea.

27. artikulua. Interes-gatazken arloko arau-hausteak eta zehapenak.

Bateraezintasunen arloko arauak edo titulu honen esparruan daudenean egin behar dituzten aitortpenak arautzen dituztenak ez betetzea Estatuko Administrazio Orokorren interes-gatazkei buruzko araudian xedatutakoarekin bat etorritik zehatu da; eta, gainontzeko administrazioen kasuan, aplikatzekoa zaien araudiarekin bat etorritik.

2. 3/2015 Legea, martxoaren 30ekoa, Estatuko Administrazio Orokorreko goi-karguan aritzea arautzen duena. Laburpena.

Goi-kargu bat, aintzat harturik kargu horrek berekin duen erantzukizuna eta gauzatzen dituen eginkizunen garrantzia, soil-soilik gauzatu ahal dute, beren gaitasun pertsonala eta profesionala egiaztatu ondoren, jarduera horren garapena arautzen duen esparru juridikoa errespetatzen duten pertsonen. Alde horretatik, legeak argitu, sendotu eta zabaldu egiten du esparru juridiko hori, kargua gauzatea kargudunaren interes pribatuen eta bere eginkizun publikoek atxikitzen zaizkien artean gatazkarik ezeko, gardentasuneko eta legezketasuneko baldintza gorenekin egiten dela bermatzeari begira.

3. artikulua. Goi-karguan aritzea.

1. *Goi-karguan aritzean, abenduaren 9ko 19/2013 Legean jasotako gobernu onari buruzko xedapenez gain, bereziki honako printzipio hauek bete beharko dira:*

- a) *Interes orokorra: objektibotasunez zerbitzatuko dituzte interes orokorrak.*
- b) *Osotasuna: arreta egokiarekin jardungo dute, eta interes-gatazkak izateko arriskua saihestuta.*
- c) *Objektibotasuna: erabakiak hartzerakoan, alde batera utziko dituzte jarrera pertsonalak, familiakoak, korporatiboak edota bezeroekin lotutakoak, bai eta printzipio honen aurka egin dezaketenean bestelako jarrerak ere.*
- d) *Gardentasuna eta erantzukizuna: erabakiak gardentasunez hartuko dituzte eta erabakiok sortutako ondorioen erantzule izango dira.*

e) *Austeritatea: baliabide publikoak efizientziaz kudeatuko dituzte, gastua arrazionalizatuta.*

2. *Aurreko zenbakian aipatutako printzipioak goi-kargudunen eginkizunei eta jardunari aplikatzeko araudiaren oinarri izango dira. Halaber, interpretazio-irizpide gisa erabiliko dira zehapen-xedapenak aplikatzeko garaian.*

Haien garapena eta balizko ez-betetzeekin lotutako erantzukizunak erregulatzeko, indarrean dauden gobernu onari buruzko arauak hartuko dira kontuan, dagokien aplikazio-eremuan.

II. TITULUA. Interes-gatazken eta bateraezintasunaren araubidea

11. artikulua. Interes-gatazkaren definizioa.

1. *Goi-kargudunek objektibotasunez zerbitzatuko dituzte interes orokorrak, eta saihestu egin beharko dute haien interes pertsonalek beren eginkizun eta erantzukizunak betetzean eragin desagokoa izatea.*

2. *Goi-karguduna interes-gatazkan murgilduta dagoela ulertuko da, hartuko duen erabakiak eragina izan dezakeenean, 15. artikuluan ezarritakoaren arabera, bere interes pertsonaletan, izan ekonomiko edo profesional, interes horietan onurak edo kalteak sortuko dituelako.*

Honako hauek dira interes pertsonalak:

- a) *Norbere interesak.*
- b) *Familiaren interesak; horien barnean egongo dira ezkontidearenak edo antzeko afektibitate-harremana duen bizikidearen interesak eta laugarren mailako odol-ahaidetasuna eta bigarren mailako ezkontza-ahaidetasuna duten senideen interesak.*
- c) *Goi-kargudunarekin ebatzi gabeko auziren bat duten pertsonen interesak.*
- d) *Goi-kargudunarekin ageriko laguntasun edo etsaitasuna duten pertsonen interesak.*
- e) *Goi-kargudunarekin, goi-kargudun izendatua izan aurreko bi urteetan, edozein eratako lan- edo lanbide-harremana izan duten pertsona juridiko edo erakunde pribatuen interesak.*
- f) *b) letran ezarritako senideekin edozein eratako lan- edo lanbide-harremana duten pertsona juridiko edo erakunde pribatuen interesak, harremanak zuzendaritza-, aholkularitza- edo administrazio-eginkizunak betetzea badakar.*

12. artikulua. Interes-gatazkak garaiz detektatzeko alerta-sistema.

1. *Goi-kargudunek interes-gatazkarik gabe bete behar dituzte beren eginkizun eta eskumenak; interes-gatazkarik dagoela iritziz gero, beraien eraginpeko erabakia hartzean abstenitu egin beharko dute.*

2. *Agintari-izaera duten goi-kargudunek ez dute dagokion administrazio-prozeduran parte hartuko, Herri-administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean ezarritako kausak biltzen direnean, 11. artikuluan zehaztutako interes pertsonaletan eragina dutelako. Halaber, errekusatu egin ahal izango dira, aipatutako legean zehaztutako moduan.*

Interes Gatazken Bulegoak, goi-kargudunak jardueren aitopenean emandako informazioan oinarrituz eta, hala balegokio, eskatzen zaion informazioan ere bai, kargua bete bitartean, oro har, zein gai edo arlotan abstenitu behar duen jakinaraziko dio goi-kargudunari.

3. Agintari-izaerarik ez duten goi-kargudunen zerbitzuak jasotzen dituzten organo, erakunde eta entitateek prozedura egokiak ezarri behar dituzte sor daitezkeen interes-gatazkak detektatzeko, eta, interes-gatazkak izanez gero, abstentzi daitezzen edo erabakia hartzean errekusatua izan ahal daitezzen. Prozedura horiek eta prozedurak aplikatzearen emaitza urtero komunikatu beharko zaizkio Interes Gatazken Bulegoari.

4. Goi-kargudunaren abstentzia idatziz gauzatuko da, eta goiko nagusiari edo izendatu zuen organoari jakinaraziko zaio. Abstentzio hori hilabeteko epean komunikatuko dio goi-kargudunak Goi Kargudunen Jardueren Erregistroari, jasota gera dadin.

Abstentzia kide anitzeko organo baten bileran gertatzen bada, abstentzia aktan jasotzea eta goiko nagusiari edo izendatu zuen organoari komunikatzea parekoak izango dira. Kide anitzeko organoko idazkariak komunikatuko dio Goi Kargudunen Jardueren Erregistroari.

5. Goi-kargudunak noiznahi egin ahalko dizkio Interes Gatazken Bulegoari gai jakinetan abstenitzeko egokitasunari buruz beharrezkotzat jotzen dituen kontsulta guztiak.

1208/2018 Errege Dekretua, irailaren 28koa, Estatuko Administrazio Orokorreko goi-karguan aritzea arautzen duen martxoaren 30eko 3/2015 Legearen atariko titulua eta II. eta III. tituluak garatzeko erregelamendua onartzen duena.

5. artikulua. Goi-kargudunaren abstentziorako adierazpena

Martxoaren 30eko 3/2015 Legearen 12. artikuluko 2. eta 3. atalek adierazten duten goi-kargudunaren abstentzia horretarako onartutako ereduaren arabera egingo da.

Abstentzia organo kolegiatu baten bileran gertatzen bada, abstentzio hori agirian jasoko da idatziz eta organo kolegiatuko idazkariak, hilabete bateko epean, Jardueren Erregistroari jakinaraziko dio, horretarako onartuta dauden ereduaren arabera.

TFP/2/2020 Agindua, urtarrilaren 8koa, zeinaz zehazten baita noiztik izango den nahitaezkoa Interes Gatazken Bulegoarekin harremanak bitarteko elektronikoen bidez izatea martxoaren 30eko 3/2015 Legeak eta bera garatzeko erregelamendua aurreikusten dituzten prozeduretan eta zeinaz onartzen baitira deklarazio-, komunikazio- eta agiri-eredu elektronikoak; 3/2015 Legeak Estatuko Administrazio Orokorreko goi-karguan aritzea arautzen du, eta bera garatzeko erregelamendua irailaren 28ko 1208/2018 Errege Dekretuaren bidez onartu zen. Agindu horretan, hain zuzen, eredu hauek ageri dira:

- 8. eredu. Abstentzia administrazio-prozeduretan.
- 9. eredu. Abstentzia organo kolegiatuetan.

3. 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena. Laburpena.

4. atala. Abstenitzea eta errekusatzea

23. artikulua. Abstenitzea.

1. Administrazioetako agintari edo langileak, hurrengo zenbakian aipaturiko egoeretakoren batean daudenean, prozeduran esku hartetik abstenituko dira eta horren berri emango diote beren nagusi hurrenari, bidezkoa dena ebatz dezan.

2. Abstenitzeko arrazoi dira:

a) Interes pertsonala izatea aztertuko den gaian edo besteren batean, baldin eta azken horren ebazpenak lehenari eragin badiezaioke; sozietate edo entitate interesdunen bateko administratzaile izatea, edo interesdunen batekin ebatzi gabeko auziren bat izatea.

b) Ezkontza-lotura edo antzeko egitatezko egoera izatea, eta ahaidetasuna izatea, laugarren gradurainoko odolkidetasunezkoa edo bigarren gradurainoko ezkontza-ahaidetasunezkoa, interesdunetako edozeinekin, entitate edo sozietate interesdunen bateko administratzaileekin, bai eta prozeduran esku hartzen duten aholkulari, legezko ordezkari edo mandatariekin ere, edo haien bulego berekoa izatea edo haiekin elkartuta egotea aholkularitza, ordezkaritza edo mandataritzarako.

c) Aurreko letran aipaturiko pertsonetakoren batekin adiskidetasun mina edo ikusiezin nabarmena izatea.

d) Dagokion prozeduran aditu edo lekuko gisa parte hartua izatea.

e) Gaian zuzeneko interesa duen pertsona fisiko edo juridikoren batekin zerbitzu-harremana izatea edo pertsona horri, azken bi urteetan, zerbitzu profesionalak eskaini izana, edozein motatakoak eta edozein baldintza eta tokitan.

3. Aurreko zenbakian azaldutako egoeretakoren batean badago inor, organo hierarkian goragokoek agin diezaiokete absteni dadila espedientean edozein parte-hartze izatetik.

4. Administrazio publikoetako agintari edo langileek abstenitzeko arrazoiren bat izanik jarduteak ez du nahitaez ekarriko, kasu guztietan, parte hartu duten egintzak baliogabeak izatea.

5. Inguruabar horietakoren bat dagoen kasuetan ez abstenitzeak dagokion erantzukizuna ekarriko du.

24. artikulua. Errekusatzea.

1. Aurreko artikuluan aurreikusitako kasuetan, prozeduraren izapidetzearen edozein unetan eska dezakete interesdunek errekusazioa.

2. Errekusazioa idatziz aurkeztuko da, zein arrazoitan oinarritzen den adierazita.

3. Errekusatuak biharamunean adieraziko dio bere nagusi hurrenari alegatutako arrazoia beragan betetzen den ala ez. Lehenengo kasuan, nagusiak ikusten badu errekusatzeko arrazoia betetzen dela, ordezkaria jartzea erabakiko du berehala.

4. Errekusatuak errekusatze-arrazoia ukatzen badu, nagusiak hiru eguneko epean ebatziko du, bidezko deritzen txostenen eta egiaztapenen ondoren.

5. Gai honetan hartutako ebazpenen kontra ezin jarriko da errekurtsorik, hargatik eragotzi gabe errekusazioa alegatzeko aukera prozedurari amaiera ematen dion egintzaren aurka egokitzen den errekurtsioa aurkezterakoan.

4. 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena. Laburpena.

VI. KAPITULUA. Enplegatu publikoen eginbeharrak. Jokabide-kodea

52. artikulua. Enplegatu publikoen eginbeharrak, Jokabide-kodea.

Langile publikoek arretaz bete beharko dituzte esleituta dituzten zereginak, eta interes orokorrak zaindu beharko dituzte Konstituzioa eta gainerako ordenamendu juridikoa betetz; halaber, honako printzipio hauen arabera ere jardun beharko dute: objektibotasuna, osotasuna, neutraltasuna, erantzukizuna, inpartzialtasuna, konfidentzialtasuna, zerbitzu publikoaren aldeko dedikazioa, gardentasuna, eredugarritasuna, austeritatea, irisgarritasuna, eraginkortasuna, zintzotasuna, kulturaren eta ingurumenaren sustapena, eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunarekiko errespetua. Hurrengo artikuluetan araututako jokabide- eta etika-printzipioek eratutako langile publikoen Jokabide Kodearen inspirazioa dira horiek.

Kapitulu honetan ezarrita dauden printzipioak eta arauak izango dira oinarri enplegatu publikoen diziplina-araubidea interpretatu eta aplikatzeko orduan.

53. artikulua. Printzipio etikoak.

1. Enplegatu publikoek Konstituzioa eta ordenamendu juridikoa osatzen duten gainerako arauak errespetatuko dituzte.

2. Enplegatu publikoen jardunak herritarren interes orokorrak betetzea izango du xede eta inpartzialtasuna eta guztiontzako interesa lortzera doazen jarraibide objektiboak izango ditu oinarri, printzipio horren aurkakoak izan daitezkeen jokabide guztiak erabat alde batera utzita, pertsonalak, familiartekoak, korporaziokoak nahiz bezeroei dagozkienak izan.

3. Beren jarduna leialtasunaren eta fede onaren printzipioen arabera izango da, bai lanean diharduteneko administrazioarekin, baita nagusi, lankide, menpeko eta herritarrekin ere.

4. Enplegatu publikoen jokabideak oinarritzko eskubideen eta askatasun publikoen errespetua izango du oinarri, eta saihestu egingo ditu era guztietako bereizkeriak, jaiotza, arraza edo etnia, generoa, sexua edo orientazio sexuala, erlijioa edo sinismenak, iritzia, desgaitasuna, adina edo bestelako egoera edo inguruabar pertsonal nahiz sozialak direla-eta, sor litezkeenak.

5. Interes pertsonala duten gaietan abstenitu egingo dira eta, lanpostu publikoaren interesekiko gatazka ekartzeko arriskua izan badezakete, jardun pribatu eta gainerako interes guztietan ere bai.

6. Enplegatu publikoek ez dute betebeharrak ekonomikorik hartuko, eta ez dute pertsona nahiz erakundeekin parte hartuko finantza-eragiketetan, ondareko betebeharretan edo negozio juridikoetan horrek lanpostu publikoaren betebeharrakiko interes-gatazka sortzeko arriskua ekar badezake.

7. Enplegatu publikoek ez dute pertsona fisiko nahiz erakunde pribatuengandik mesede-traturik onartuko, ezta arrazoirik gabeko pribilegioa edo abantaila dakarren egoerarik ere.

8. Eraginkortasun-, ekonomia- eta eragimen-printzipioen arabera jardungo dute; eta interes orokorraren alde joka dadin eta erakundearen helburuak bete daitezzen zainduko dute.

9. Enplegatu publikoek ezin dute, tartean bidezko arrazoirik izan gabe, administrazio-prozedurak edo tramiteak azkartzeko edo ebazteko eraginik izan; are gutxiago, horrek pribilegioa badakar kargu publikoetako titularren alde edo beren familiartekoen edo inguru sozialaren alde, edo kaltea badakar hirugarren batzuen interesen aurka.

10. Enplegatu publikoek arretaz beteko dituzte atazak, dagozkienak nahiz agindutakoak, eta, hala dagokienez, epe barruan ebaztuko dituzte eskumenean dituzten prozedurak eta espedienteak.

11. Zerbitzu publikoaren aldeko dedikazio-printzipioari jarraituz beteko dituzte dagozkien eskurantzak, eta saihestu egingo dituzte, printzipio horren aurkako jokabideez gain, zerbitzu publikoaren jardunean zaindu beharreko neutraltasuna kolokan jar dezaketen jokabide guztiak.

12. Sekretupean gordeko dituzte sailkatuta dauden gaiak edo legez zabalkundea debekatuta dutenak, eta behar besteko zuhurtasunez jokatuko dute beren kargua dela-eta dakizkiten gaiei buruz; eta eskuratu duten informazio hori ezin izango dute erabili ez beren mesederako, ez hirugarren batzuen erako, ezta interes publikoaren kalterako ere.

54. artikulua. Jokabide-printzipioak.

1. Arretaz eta begirunez tratatuko dituzte herritarrak, beren nagusiak eta gainerako enplegatu publikoak ere.

2. Enplegatu publikoek, lanpostuari dagozkion atazak betetzerakoan, zuhurtasunez eta arretatsu jokatuko dute, eta ezarritako lanaldia eta ordutegia beteko dute.

3. Nagusiek emandako jarraibide eta agindu profesionali men egin behar diete, argi eta garbi ordenamendu juridikoaren aurkakoak ez badira behintzat; horrelakoetan, berehala emango diote horren berri dagoen ikuskaritza-organoari.

4. Ezagutzeko eskubidea duten gaiei eta arloei buruzko informazioa emango diete herritarrei, eta laguntza emango diete beren eskubideak baliatu eta betebeharrak bete ditzaten.

5. Enplegatu publikoek baliabide eta ondasun publikoak austeritatez administratuko dituzte, eta ez dituzte erabiliko norberaren edo hurbilekoen mesederako. Baliabide eta ondasun horiek zaintzeko egin beharra ere izango dute.

6. Ez da abantaila-egoera dakarren inolako oparirik, mesederik edo zerbitzurik onartuko, gizartean ohituraz eta kortesiaz ohi direnez aparte, betiere, Zigor Kodean ezarritakoari kalte egin gabe.

7. Dokumentuen ziurtasuna eta iraupena bermatuko dituzte, agiri horiek ondorengo arduradunei eman eta eskualdatu ahal izateko.

8. Eguneratuta izango dute beren prestakuntza eta kualifikazioa.

9. Laneko osasunari eta segurtasunari buruzko arauak beteko dituzte.

10. Beren nagusien edo organo eskudunen jakinaren gainean jarriko dituzte, zerbitzuan diharduteneko unitatearen eginkizunak hobeto betetzeko beren ustez egoki diren proposamenak. Horretarako, enplegatu publikoek eta herritarrek egindako proposamenak, zeinak zerbitzuaren eraginkortasuna hobetzeko baitira, jasoko dituen instantzia eskumendun egokia sortzea aurreikus daiteke.

11. Herritarrari berak eskatutako hizkuntzan erantzungo zaiola bermatu behar dute, hizkuntza hori lurralde horretan ofiziala bada.

Lehenengo xedapen gehigarria. Berriazko aplikazio-eremua. Estatuko, erkidegoetako eta tokian tokiko sektore publikoan diharduten erakundeek, estatutu honetako 2. artikuluan sartuta ez badaude eta berriaz duten arautegian hala definituta badaude, 52., 53., 54., 55. eta 59. artikuluetan jasotako printzipioak aplikatu behar dituzte.

5. 53/1984 Legea, abenduaren 26koa, Herri Administrazioen Zerbitzuko Langileen Bateriaezintasunari buruzkoa. Laburpena.

Lege honetan dagoen bateraezintasunen arautzea, funtsezko printzipio moduan, abiatzen da administrazio publikoan zerbitzura aritzen diren langileak lanpostu bakar batean jardutetik, zerbitzu publikoak berak eskatzen dituen salbuespenak bakarrik izanda. Jarduera pribatuetan aritzea errespetatu behar da, kontuan izanik jarduera pribatu horiek ezin dutela eragotzi edo urritu beren betebeharrak zorrotz betetzea edo ezin dutela arriskuan jarri inpartzialtasuna edo independentzia.

1. artikulua. [Printzipio orokorrak]

1. Lege honen aplikazio-eremuaren barnean dauden langileek ezin izango dituzte beren jarduerak bateragarri egin sektore publikoan bigarren lanpostu, kargu edo jarduera batean aritzearekin, berez edo ordezkapen bidez, legean bertan jasotako kasuetan izan ezik.

(...)

2. Gainera, lege honetan jasotako kasuetan izan ezik, ezin izango da hartu ordainsari bat baino gehiago administrazio publikoetako aurrekontuen eta haien mende dauden erakunde, organismo eta enpresetako aurrekontuen kontura edo konstituzio-organoen kontura, edo muga-zerga aplikatuzetik heldu dena ez eta lanpostu bateraezinei dagozkien jasotzeengatik aukera gauzatu ere.

(...)

3. Edonola ere, lege honen aplikazio-eremuaren barnean dauden langileak lanpostu batean aritzea bateraezina izango da beren betebeharrak zorrotz betetzea eragotzi edo urritu ahal duen edo inpartzialtasuna edo independentzia arriskuan jar dezakeen edozein kargu, lanbide edo jarduera gauzatzearekin, publikoa edo pribatua izan.

2. artikulua.

1. Lege hau hauei aplikatuko zaie:

c) Toki-korporazioen eta haien mendeko organismoen zerbitzura aritzen diren langileak.

...

h) Administrazio publikoen kapitalaren partaidetza, zuzenean edo zeharka, 100eko 50etik gorakoa duten enpresetan zerbitzua ematen duten langileak.

...

j) Funtzionario publikoen estatutu-erregimena aplikatu behar zaien gainerako langileak.

2. Aurreko atalean mugatutako esparruan langile guztiak sartuko dira, enplegu-harremanaren izaera juridikoa edozein dela ere.

6.- 251/1993 Foru Dekretu Legegilea, abuztuaren 30ekoa, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langilariaren Estatutuaren Testu Birbildua onesten duena. Laburpena.

56. artikulua. Iharduneko zerbitzuan dauden funtzionarioek ondoko betebeharrak dituzte:

a) Nafarroako foru araubidea errespetatu eta Konstituzioa eta legeei men egitea.

b) Interes orokorrari objektibotasunez zerbitzu eman eta bere karguari dagozkion eginkizunak, zintzo, zehazki, inpartzialki eta finki betetzea.

c) Estatutu honetan ezarritako bateraezintasunen araubidea betetzea.

d) Sekretu profesionala gordetzea.

....

j) Bere karguari dagokion ihardunean, bere sinaduraz txosten, proiektu edo lanbide jarduketan erantzule izatea.

...

l) Estatuko oinarrizko legeriak funtzionario publikoei ezartzen dizkien oinarrizko betebeharrak, aurreko lerroaldeetan sarturik ez daudenak, betetzea.

57. artikulua.

1. Funtzio publikoan aritzea bateraezina izanen da, edozein kargu, lanbide edo jarduera publiko nahiz pribatutan, bakoitzaren kontura edo besteendako, ordainduta edo soilik ohorez, aritzearekin, funtzionarioaren betebeharrak betetzea eragotzi edo gutxietsi, beraien inpartzialtasun edo independentzia ezbaian jarri edo interes orokorrak kaltetzen badituzte.

2. Funtzionario publikoek ezin izanen dute merkataritza, industria edo lanbide jarduerak burutzean funtzionario direla aldarrikatu edo izaera hori erabili.

3. Estatutu honen aplikazio-eremuan sartutako funtzionarioek ezin izanen dute soldata bat baino gehiago jaso Administrazio, Entitate edo Erakunde Publiko, edo horien menpeko erakunde eta enpresen Aurrekontuen kargura, unibertsitateko ikastetxeetan irakaskuntza lanak egitearen ondoriozkoak izan ezik.

Ondorio hauetarako, soldatatzat hartuko da aldioroko ordainsari oro, edozein izanik horien zenbateko eta izena.

4. Funtzio publikoan aritzea ondoko jarduera pribatuekin osoki bateraezina izanen da:

a) *Enpresa pribatuetako Administrazio Kontseiluei aholku ematea edo horien partaide izatea, beti ere horien jarduerak eta funtzionarioak bere zerbitzuak ematen dituen Administrazio Publikoak burutzen duenak zerikusi zuzena badute.*

b) *Funtzionarioa atxikita dagoen Administrazio Publikoarekin egindako itunen, hau da, zerbitzuak jarraian edo noizbehinka ematekoen, titulartasun indibiduala edo besterekin banatutakoa, edozein izanik zerbitzu horien izaera.*

c) *Funtzionarioa atxikita dagoen Administrazio Publikoarekin zerbitzuak emateko itunak dituzten elkarten kapitalaren 100eko 10 baino handiagoko partaidetza, edozein izanik zerbitzu horien izaera; baita aipatu elkarte horien zerbitzura egindako lana ere, jarraian emandakoa edo jarrai gabekoa, ordaindutakoa edo ordaindu gabekoa, ordutegiari atxikia edo atxiki gabekoa.*

5. *Iharduneko zerbitzuan dauden funtzionarioek, Administrazio Publikoetatik kanpo burutzen dituzten irabazizko jarduerak, lanbide, lan, merkataritza edo industriakoak, aitortzeko obligazioa dute, norberaren edo familiaren ondarea administratzearen ondoriozkoak izan ezik, azken hauek aurreko atalean ezarritako bateraezintasunen araubideari atxikiko baitzaizkio. Aitorpen hori ikusirik, behar den Administrazio Publikoak arrazonatutako ebazpena eman beharko du. Horretan deklaratu da funtzionarioaren betebeharrak betetzea eragotzi edo gutxietsi, beraien inpartzialtasun edo independentzia ezbaian jarri edo interes orokorrak kaltetzen dituzten jarduerak bateraezinak direla.*

6. *Nafarroako Administrazio Publikoek parte hartzen duten enpresen gobernu organoetan horien ordezkari gisa arituko diren funtzionarioek, organo horien bilkuretara joateagatik dagokien dieta edo kalte-ordainak soilik jaso ditzakete. Enpresek beste edozein kontzepturengatik sortutako zenbatekoak zuzenean ordainduko dizkiote behar den Administrazio Publikoari.*

7. *Erabateko dedikazioaren osagarria esleiturik duten lanpostuak betetzen dituzten funtzionarioak, Estatutu honetako 45.2 artikulua aipatzen duen debeku berariazkoari lotuko zaizkio, aurreko ataletan ezarritako bateraezintasun orokorrak ahaztu gabe.*

8. *Bateraezintasunaren osagarria esleiturik duten lanpostuak betetzen dituzten funtzionarioak, Estatutu honetako 46.2 artikulua aipatzen duen debeku berariazkoari lotuko zaizkio, aurreko ataletan ezarritako bateraezintasun orokorrak ahaztu gabe.*

9. *Artikulu honetan ezarritako bateraezintasunen araubidea ez betetzea hutsegite oso larritzat hartuko da. Diziplina espedientea irekiko da, Administrazioak, egin den bateraezintasuna eraginkorra izan dadin har ditzakeen neurriak berehala hartzea galarazi gabe.*

10. *Bateragarria den jarduera bat burutzea ez da aitzakiatzat hartuko, karguari dagokion bizitokia izan eta lantokira joateko betebeharrak dagokienean, ezta horietan emandako gibelamendu, axolagabekeria edo arduragabekeriari dagokienean ere. Horrela ez bada, Administrazioak, emandako bateratasunaren baimena berehala utziko du indarrak gabe eta egindako hutsegiteak zehaztu eta zehatzeko diziplina espedientea irekiko.*

7.- 5/2018 Foru Legea, maiatzaren 17koa, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzkoa. Laburpena.

Xedapen orokorreari buruzko I. tituluan legearen funtsezko gai zeharkakoak jasota daude, hala nola, legearen xedea eta helburuak, aplikazioaren esparru subjektiboa, eta legearen interpretazioa eta aplikazioa gidatu behar dituzten definizioak eta printzipioak. Legearen xedeak hauek dira: jarduera publikoan eta gobernu ekintzan gardentasuna arautu eta bultzatzea; informazio publikoa eskuratzeko eskubidea egiaz baliatzeko aukera bermatzea, eta, horrekin batera, sustatu eta bermatzea herritarrek, ezagutzatik, arlo publikoan erabakiak hartzen eta kudeatzen parte har eta lagundu dezaten, horrela herritarrekiko elkarrekintza sortuko baita, demokrazia eraginkortasunez areagotuko duena; interes taldeak arautzea; eta gobernu ona ziurtatuko duen arau multzo bat ezartzea.

VI. ERANSKINA. AGINTARI ETA KARGUDUN PUBLIKOEN GOBERNU ONAREN KODEA

2/2011 Foru Legeak, martxoaren 17koak, Gobernu Onaren Kodea ezartzen duenak, 2. eta 3. artikuluetan, printzipio etikoak eta jokabideari buruzko printzipioak jasotzen ditu. Hain zuzen, toki-erakundeetarako hautetsitako ordezkariak haien arabera jokatu behar dute.

2. artikulua. Printzipio etikoak.

1. Nafarroako Gobernuako kideek, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari goi karguek eta Nafarroako toki entitateetako hautetsiek giza eskubideak eta herritarren eskubideak sustatuko dituzte, eta saihestuko dute jaioleku, arraza, sexu, erlijio, iritzi nahiz bestelako inguruabar edo egoera pertsonal zein sozialengatik bereizkeria eragin dezakeen jarduketara.

2. Erabakiak hartzerakoan, xedea izanen da herritarren interes orokorreari erantzutea, eta, horretarako, interes komunera bideratutako gogoeta objektiboak hartuko dira oinarritzat, alde batera utzita printzipio horren aurkakoak izan daitezkeen jarrera pertsonalak, familiakoak, korporatiboak, bezerokeriazkoak edo beste edozein motatakoak.

3. Kargu publikoak zainduko dute emakumezkoen eta gizonezkoen arteko errespetua sustatzen dela, eta hori zailtzen duten oztopoak kenduko dituzte.

4. Ez dute administrazio-izapideen edo -prozeduren arintzean edo ebazpenean eraginik izanen, horretarako bidezko arrazoirik ez badago, eta, inoiz ere ez, horrek pribilegioren bat baldin badakar kargu horien titularrentzat, haien senitarteko edo gertukoren batentzat, edota kaltegarri gertatzen bada hirugarrenen interesentzat.

5. Eraginkortasunaren, ekonomiaren eta efizientziaren printzipioen arabera jardunen dute, eta beti zainduko dute interes orokorra betetzen dela eta antolamenduaren helburuak betetzen direla.

6. Beren jarduera publikoa gardena eta irekia izanen da herritarrentzat, legeetan ezarritako salbuespenak salbuespen.

7. Une oro beren gain hartuko dute haien erabakien eta jarduketan erantzukizuna, bai eta zuzentzen dituzten erakundeena ere, eta hori ez da oztopo izanen legez beste batzuk ere eska dakizkien.

8. Beren jarduketan erantzukizuna beren gain hartuko dute goragokoen aurrean, eta ez dute erantzukizun hori menpekoen gain utziko, horretarako arrazoi objektiborik ez bada.

9. Esleituta dituzten eginkizunak beteko dituzte fede onaren eta zerbitzu publikoaren alde egitearen printzipioen arabera, eta ez dute printzipio horien aurka jardunen. Halaber, saihestuko dute esleituta dituzten zerbitzu publikoak betetzean izan beharreko neutraltasuna zalantzan jartzen duen jardunbide oro.

10. Interes publikoko informazioa zabaltzeari buruzko legeetan ezarritakoa ezertan ere galarazi gabe, isiltasuna, sekretua eta zuhurtzia gordeko dira kargua dela-eta ezagutzen diren datu eta txostenei dagokienez.

11. Honakoetan oinarritutako jokabide-arauak beteko dituzte: gainerako herritarrekiko berdintasuna, gardentasuna, erabakietan eta zerbitzu publikoan neutraltasunez aritzea eta prestakuntzan, berrikuntzan eta jardunean ahalegintzea.

3. artikulua. Jokabideari buruzko printzipioak.

1. Goi karguak betetzeak dedikazio eskusiboa eskatzen du.

2. Alderdi politikoaren zuzendaritzetako organo exekutiboetan karguak betetzeak ez du inolaz ere kaltetuko edo arriskuan jarriko arduradun publiko gisa dituzten betebeharrak betetzea.

3. Goi karguek, esleituta dituzten zerbitzuei dagokienez, ziurtatuko dute herritarrek modua izanen dutela zerbitzu publiko horien funtzionamenduari buruz informazioa jasotzeko duten eskubidea erabiltzeko, berariazko arauak ezarritako mugekin.

4. Beren eginkizunak betetzerakoan, arreta handiz jokatu dute, halako moduz non hartutako betebeharrak enplegatutako publikoaren jardunbidearentzat eredu izateko moduan beteko diren. Eredugarritasun hori aplikatuko dute, era berean, herritar diren aldetik legeek eskatzen dizkieten betebeharrak betetzerakoan.

5. Baliabide publikoak zuhurtziaz administratuko dituzte, eta kargu publikoa betetzean beharrezkoa den duintasuna kaltetu dezakeen jardura oro saihestuko dute.

6. Ez dute oparirik, mesederik edo abantailazko baldintzetako emandako zerbitzurik onartuko, ohiturazkoak edo kortesiazkoak direnez harago, ez eta bere eginkizunen betetzea baldintzatu dezakeen prestazio ekonomikorik ere, Zigor Kode ezarritakoa galarazi gabe.

Izaera instituzionala duten opari esanguratsuagoen kasuan, horiek foru erkidegoko ondarean sartuko dira, foru legeetan aurreikusitakoaren arabera eta erregelamendu bidez ezarritakoari jarraikiz.

7. Beren eginkizunak betetzerakoan, herritarren eskura egonen dira eta arreta osoa jarriko dute haiek aurkezten dituzten idatzi, eskaera eta erreklamazio guztiei erantzuterakoan.

8. Foru Komunitateko Administrazioak kargua dela-eta haien eskura jartzen dituen ondasun eta zerbitzuen erabilera desgokirik ez dute eginen.

9. Kultur ingurunearen eta hizkuntza aniztasunaren babesa, bai eta ingurumenaren kalitatearen babesa eta hobetzea izanen dira foru lege honen mendean dauden arduradun publikoek beren eginkizunetan izanen duten jokabidea.

10. Ziurtatuko dute dokumentuak jasota geratzen direla, modu iraunkorrean, bere ondorengoei emate aldera.

Halaber, 19/2013 Legean, abenduaren 9koan, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoan, II. titulua gobernu onari buruzkoa da. Titulu hori, hain zuzen, aplikagarria den autonomia- edo toki-araudiaren arabera, halakotzat hartzen diren goi-kargudunei edo parekatuei aplikatzekoa da.

26. artikulua. Gobernu onaren printzipioak.

1. Titulu honen aplikazio-eremuan sartzen diren pertsonak, beren funtzioak betetzean, Espainiako Konstituzioan eta gainontzeko ordenamendu juridikoan xedatutakoa beteko dute, eta oinarrizko eskubideen eta askatasun publikoen errespetua bultzatuko dute.

2. Era berean, honako printzipio orokor hauetara egokituko dute beren jardura:

a) Printzipio orokorrak:

1. Gardentasunez jokatu dute gai publikoak kudeatzean, eraginkortasun, ekonomia eta efizientzia printzipioekin bat etorritik eta interes orokorrari erantzuteko helburuarekin.

2. Zerbitzu publikoaz arduratuz beteko dituzte beren eginkizunak, printzipio horien kontra doan edozein jokabide saihestuz.

3. Inpartzialtasun printzipioa errespetatuko dute, eta, beraz, interes partikular ororen aurrean, irizpide independentea eta interes horrez bestekoa izango dute.

4. Beren eginkizunak betetzean, berdintasunezko eta inolako diskriminaziorik gabeko tratua ziurtatuko dute.

5. Behar besteko arretaz jokatu dute beren betebeharra betetzean, eta kalitatea bultzatuko dute zerbitzu publikoak ematean.

6. Jokabide duina izango dute, eta herritarrak arreta bereziz tratatuko dituzte.

7. Beren erabaki eta jardueren eta zuzentzen dituzten organismoen erabaki eta jardueren erantzukizuna hartuko dute beren gain, hartara eragotzi gabe legez eska dakizkiekeen beste batzuk.

b) Jarduteko printzipioak:

1. Dedikazio osoz eta bateraezintasunak eta interes-gatazkak arautzeko araudia erabat errespetatuz beteko dute beren zeregina.

2. Beren eskumenak betetzean jakin dituzten egitate edo informazioei dagokienez, behar den zuhurtziaz jokatuko dute.
 3. Arauz kanpoko jokabideren baten berri izanez gero, eskumena duten organoei jakinaraziko diete.
 4. Boterea zertarako jaso duten, horretarako baino ez dituzte gauzatuko indarrean den araudiak ematen dizkieten botereak, eta interes publikoa edo administrazioen ondarea arriskuan jar dezakeen ekintzak saihestuko dituzte.
 5. Ez dira beren eginkizunekin bateraezinak diren egoera, jarduera edo interesetan inplikatuko, eta ez dute esku hartuko, baldin eta tartean beren objektibotasunari eragin diezaiokeen kausaren bat badago.
 6. Ez dute berentzat oparirik onartuko, baldin eta opariok ohiko erabilera edo erabilera soziala edo kortesiazkoa gainditzen badute, eta ez dute onartuko abantaila-egoeraren batean eskainitako zerbitzurik edo mesederik, baldin eta horrek baldintzatu egin baditzake beren eginkizunak betetzeko orduan. Garrantzi instituzional handiagoa duten oparien kasuan, dagokion administrazio publikoaren ondareari gehituko zaizkio.
 7. Gardentasunez beteko dituzte beren eginkizunak.
 8. Baliabide publikoak behar bezala kudeatu, babestu eta gordeko dituzte, eta ezin izango dituzte erabili aplikatzekoa den araudiak onartzen dituenetatik kanpo dauden jardueretarako.
 9. Ez dute Administrazioan daukaten posizioa erabiliko abantaila pertsonalak edo materialak lortzeko.
3. Artikulu honetan ezarritako printzipioei jarraituz interpretatu eta aplikatuko da titulu honetan araututako zehapen-araubidea.

VII. ERANSKINA. INTERES-GATAZKAREN, IRUZURRAREN ETA USTELKERIAREN PREBENTZIOARAKO TESTAREN EMAITZAK

Oharra: 4 betetze handienari dagokio; 1, txikienari.

Galdera	Betetze-maila			
	4	3	2	1
1.- Ba al dago iruzurraren aurkako Neurrien Planik, erakunde betearazleari edo erakunde erabakitzailari bermatzeko eta adierazteko kasuan kasuko jarduera-eremuan funtsak aplikatu beharreko arauen arabera erabili direla, bereziki, iruzurraren prebentzioari, ustelkeriaren eta interes-gatazken prebentzioari, detekzioari eta zuzenketari dagokionez?		X		
2.- Egiaztatzen al da iruzurraren aurkako Neurrien Plana dagoela betearazpen-maila guztietan?				X
Prebentzioa				
3.- Ba al dago iruzurraren aurka borrokatzeko konpromisoa hartzen duen adierazpen gorenik?		X		
4.- Autoebaluazio bat egiten al da arrisku espezifikoak, horien inpaktua eta horiek gertatzeko probabilitatea identifikatzeko eta aldizka berrikusteko?				X
5.- Kode etiko bat zabalitzen da eta opari-politikari buruzko informazioa ematen da?				X
6.- Etika Publikoa sustatzen duen eta iruzurra detektatzea errazten duen prestakuntzarik ematen al da?				X
7.- Egin al da interes-gatazkek tratatzeko prozedurarik?		X		
8.- Betetzen al da esku hartzen duten guztiek interes-gatazkarik ez dutela dioten adierazpena?		X		
Detekzioa				
9.- Zehaztu al dira iruzur-adierazleak edo alerta-seinaleak (bandera gorriak) eta jakinarazi al zaizkie langileei detektatzeko moduan daudela?			X	
10.- Datuak aztertzeke edo arriskuak puntuatzeko tresnak erabiltzen dira?				X
11.- Ba al dago interesdunen batek salaketak aurkezteko biderik?				X
12.- Ba al dago salaketak aztertzeaz eta neurriak proposatzeaz arduratuko den unitaterik?				X
Zuzenketa				
13.- Iruzurraren eragina ebaluatu eta sistemikotzat edo puntualtzat jotzen da?				X
14.- Erretiratzen al dira iruzurra eragindako proiektuak edo horien zatia, SEMak finantzatutakoak edo finantzatu beharrekoak?				X
Jazarpena				
15.- Gertatutakoak eta hartutako neurriak jakinarazten al zaizkie erakunde betearazleari, erakunde erabakitzailari edo Agintaritza Arduradunari, dagokionaren arabera?				X
16.- Dagokien kasuetan, estatuetako edo Europar Batasuneko Agintaritza Publikoei edo fiskaltzari eta auzitegi eskudunei zigortzeko moduko egitateak salatzen al dira?				X
Puntuen subtotala				
Puntuak, guztira	25			
Gehieneko puntuak	64			
Puntu erlatiboak (puntuak, guztira/gehieneko puntuak)				

VIII. ERANSKINA. ARRISKU-ADIERAZLE POSIBLEAK, BANDERA GORRIAK.

KONTRATAZIOA	
A	LIZITATZAILE BATEN ALDE IRUZURREZ MOLDATUTAKO BALDINTZA-AGIRIAK
1	Eskaintza bakarra aurkeztu da edo lizitatzaielen kopurua baxua da ohiz kanpoko eran
2	Egiazta daitekeen antzekotasuna dago kontratazio-prozedurako baldintza-agirien eta kontratista esleipendunaren zerbitzuen eta/edo produktuen artean
3	Zentzu horretako kexak jaso dira lizitatzaielen aldetik
4	Kontratazio-prozedurako baldintza-agiriekin aurretiko antzeko prozeduretan onartutako preskripzioetatik urrun daudenak hartzen dituzte barne
5	Ezohikoak diren edo oso zentzuzkoak ez diren klausulak dituzte baldintza-agiriekin
6	Botere esleitzailerik marka jakin bat definitzen ari da, produktu generiko bat definitu ordez
7	Ez dago informazio- eta publizitate-neurririk kontratazio-prozedurari dagokion dokumentazioan eta/edo epeak ez dira nahikoak eskaintzak jasotzeko
B	KOLUSIOA LIZITAZIOAN
8	Lizitazioaren emaitzak ekarri du altuegia den eskaintza bati esleitzea kontratua, hauekin alderatuta: aurreikusita zeuden kostuekin, prezioen zerrenda publikoekin, industriaren antzeko edo batez besteko obra edo zerbitzuekin, edo merkatuko erreferentziako prezioekin
9	Aurkeztutako eskaintza guztiek prezio garestiak hartzen dituzte barne etengabe. Egiaztatu beharrekoa: lizitatzaielen artean egon litezkeen akordioak eskaintza prezioei dagokienez
10	Lizitatzailerik berriak agertzen direnean, eskaintzak nabarmen jaisten dira
11	Esleipendunek beren parte-hartzea txandakatzen dute eskualdearen, lan-motaren, obra-motaren eta abarren arabera. Egiaztatu beharrekoa: lizitatzaielen artean egon litezkeen akordioak merkatua banatzeko
12	Lizitazioan parte hartu zuten azpikontratistak daude
13	Ezohiko eskaintza-ereduak, patroiak, daude (adib.: kontratuaren aurrekontua eskaini da zehazki, eskaintzen prezioak altuegiak dira, elkarren arteko hurbilegiak...)

14	Agerikoak dira lizitazailen arteko konexioak (adib.: helbide komunak, langileak, telefono-zenbakiak...)
15	Kontratatik azpikontratistei komunikatzen die, eta haiek ere lizitazaille gisa parte hartzen dute
16	Beti konpainia batzuk lehiatzen dira eta beste batzuk inoiz ez
17	Lizitazaille faltsuak daude
18	Agerikoa da zenbait lizitazaillek informazioa trukatzen dutela, hartara, akordio informalak lortuz
19	Kolusio-probabilitate handiagoa sektore jakin batzuetan: asfalto-zolaketa, eraikinak eraikitzea, dragatzea, ekipo elektrikoak, sabaiak, hondakinak ezabatzea
C	INTERES-GATAZKA
20	Kontratista edo saltzaile jakin bati mesede egiten zaio, inolako azalpenik gabe edo ezohiko eran eta/edo ohiz kanpoko jokabidea du funtzionario/enplegatu batek, bere ardurapekoa ez den lizitazio-prozedura bati buruzko informazioa lortzeko
21	Kontratazio-organoko kideren bat lizitazioan parte hartzen ari den enpresa baterako aritu da lanean, esleitze-organismo horretako lanpostuan hasi aurre-aurretik
22	Lizitazio-organoko funtzionario/enplegatu baten eta lizitazaileren baten artean familia-loturaren bat dago
23	Errepikatzeak gertatzen dira lizitazaille berberaren aldeko esleipenetan
24	Prezio altuak eta kalitate gutxiko lanak onartzen dira
25	Kontratazioaren arduradunak diren funtzionarioek/enplegatuak ez dute IGEA aurkeztu edo osatu gabe aurkeztu dute
26	Kontratazioaren arduraduna den funtzionarioak/enplegatuak ez du onartzen kontratazio-prozesuak alde batera uztea dakarren maila-igoera bat
27	Kontratazioan parte hartzen duen funtzionarioak/enplegatuak bere negozioak egiten ditu
28	Hertsiki profesionala denetik harago, harreman soziala dago kontratazio-prozesuan parte hartzen duen funtzionario/enplegatu baten eta zerbitzuen edo produktuen hornitzaile baten artean
29	Modu esplikaezinean emendatu da kontratazioan parte hartzen duen funtzionarioaren/enplegatuaren aberastasuna edo bizi-maila
D	AURKEZTUTAKO ESKAINTZAK MANIPULATZEA
30	Lizitazailen kekek egon dira (salaketak, erreklamazioak...)
31	Lizitazio-prozeduren kontrol- eta/edo desegokitasun-eza dago
32	Eskaintzak jaso ondoren haietan aldaketak izan direla agerian uzten duten zantzuak daude
33	Akatsak zeudelako baztertu diren eskaintzak daude
34	Zalantzazko arrazoiengatik alde batera utzi diren lizitazaille gaituak daude

35	Eskatutako gutxieneko kopurua baino eskaintza gutxiago jaso da eta, hala ere, prozedurak aurrera jarraitzen du, esleitu gabe edo hutsik deklaratu gabe. Edo prozedura esleitu gabe deklaratu da eta berriro egin da deia, baldintza-agirietan ageri ziren irizpideen arabera, onargarriak ziren eskaintzak jaso arren
E	GASTUA ZATIKATZEA
36	Xede berberarekin bi erosketa edo gehiago ikusten dira, esleipendun berberaren alde eginak, lehia-berme handiagoak ez dituzten prozedurak ez erabiltzeko helburu bakarrarekin
37	Justifikaziorik gabe bereizi dira erosketak, adibidez, eskulanaren eta materialen kontratu bereziak, biak lizitazio irekiaren atalasetik behera geldituz
38	Erosketa sekuentzialak daude lizitazioen publizitate edo betebeharrak atalasetatik behera
F	KONTRATUAK NAHASTEA
39	Antzeko fakturak daude, lan edo kontratu desberdinetan aurkeztutakoak
40	Kontratistak lan bat baino gehiago fakturatu du denboraldi berebean
G	KOSTUAK OKER ZORDUNTZEA
41	Lan-kargak gehiegizkoak edo ohiz kanpokoak dira
42	Lan-kargak bateraezinak dira kontratuaren egoerarekin
43	Itxurazko aldaketak daude denborak kontrolatzeko orrietan
44	Ez dago denborak kontrolatzeko orririk
45	Kontratu bati baino gehiagori egotzitako kostu material berdin-berdinak daude
46	Zeharkako kostuak kostu zuzen moduan egozten dira

DIRULAGUNTZAK	
A	LEHIA MUGATZEA
1	Oinarri arautzaileei/deialdiari ez zaie zabalkunde nahikoa eman, publizitate-eta gardentasun-printzipioak bete gabe utzita. Besteak beste, gerta daiteke Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorrean eta/edo beste zabalkunde-bitarteko batzuetan ezarritako nahitaezko bitartekoak ez betetzeagatik
2	Laguntzen/dirulaguntzen onuradunek/hartzaileek bete behar dituzten baldintzen deialdian definizio argia falta da
3	Oinarri arautzaileetan/deialdian eskaerak aurkezteko ezarritako epeak ez betetzea
4	Ez dira argitaratzen baremoak dagozkien aldizkari ofizialetan, emandako dirulaguntzei aplikatzekoak direnean

5	Laguntzen onuradunak/hartzaileak ez du betetzen lehia bermatzeko betebeharra, hornitzaileekin negoziatu behar badu. Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 31.3 eta 29.7 artikulua ez betetzea.
B	<i>BEREIZKERIAZKO TRATUA ESKATZAILEAK HAUTATZEAN</i>
6	Objektibitateko, berdintasuneko eta bereizkeriarik ezeko printzipioak ez dira bete onuradunak hautatzean. Ez zaio irizpide homogeen bati jarraitzen, onuradunak hautatzeko
C	<i>INTERES-GATAZKA EBALUAZIO-BATZORDEAN</i>
7	Nahita izan da eragina onuradunen ebaluazioan eta hautaketan, haietako baten bati mesede eginez, lehentasunezko tratua emanda, edo batzordeko beste kide batzuk behartuta
D	<i>ESTATUKO LAGUNTZEN ERREGIMENA EZ BETETZEA</i>
8	Finantzatutako eragiketak Estatuaren laguntzak dira eta ez zaio jarraitu xede horretarako Europako araudiak ezarritako informazio- eta jakinarazpen-prozedurari
E	<i>DIRULAGUNTZAREN XEDEA DESBIDERATZEA</i>
9	Dirulaguntza arautzeko araudian ezarritako xedea ez du bete onuradunak edo ez da gauzatu
F	<i>GEHIGARRITASUN PRINTZIBIOA EZ BETETZEA</i>
10	Eragiketen gehiegizko kofinantzaketa dago
11	Proiektu bera finantzatzen duten zenbait kofinantzatzaile daude
12	Beste batzuek egindako ekarpenen euskarri den dokumentazioa falta da (adibidez: hitzarmenak, dohaintzak, bestelako diru-ekarpenak...)
13	Beste batzuek emandako finantzazioa ez da finantzaketa lotukoa, eta ez dago hura banatzeko irizpiderik
14	Onuradunek eragiketa bakoitzeko egindako gastuen eta diru-sarreraren kontrolik ez dago
15	Onuradunak proiektuari esleitutako mugarren eta/edo helburuen kontrolik ez dago
G	<i>DOKUMENTUAK FALTSUTZEA</i>
16	Eskatzaileek aurkeztutako dokumentu edo adierazpen faltsuak daudela egiaztatuta, hautaketa-prozesu batean hautatuak izateko. Faltsutasun hori edozein dokumenturen gainekoa izan daiteke: sinatutako aitortpenak, finantza-informazioa, konpromisoak... Ebaluazio-batzordea okertzeraren eraman dezakete
17	Gastuak justifikatzeko dokumentu-euskarria manipulatu egin da
H	<i>INFORMAZIOARI ETA PUBLIZITATEARI BURUZKO ESTATUKO ETA EUROPAR BATASUNEKO ARAUDIAN EZARRITAKO BETEBEHARRAK EZ BETETZEA</i>
18	Informazio- eta komunikazio-betebeharrak ez dira bete. Bereizki, testu normatibo desberdinetan dauden betebeharrak, bai Estatuak bai Europakoak ere

I	AUDITORIA-AZTARNA GALTZEA
19	Erakundeak alde batera utzi du eragiketaren dokumentazio zuzena, auditoria-aztarna bermatzeko bidea emango lukeena
20	Deialdiak saihestu egiten du eragiketatik eratorritako gastu desberdinak dokumentatzeko izan behar den modua
21	Deialdian aukeragarriak diren gastuen definizio argia eta zehatza falta da
22	Proiektuetan kostuak kalkulatzeko aplikatu behar den metodoa falta da deialdian

ENKARGUAK	
A	JARDUERA ERA IRREGULARREAN GAUZATZEA. Bereziki, AZPIKONTRATATZEAN
1	Azpik kontratatu egin da egin beharreko jarduera eta emandako zerbitzuak edo ondasunak espero izatekoa zen kalitatetik behera daude
2	Enkargua edo agindua jaso duen erakundeak ez du bete lehia bermatzeko betebeharra, hornitzaileekin negoziatzeko beharra baldin badu
3	Enkargua edo agindua jaso duen erakundeak ez du bete lehia bermatzeko betebeharra, azpikontratate kasuan
4	Azpik kontratatu diren lanek ez dute betetzen egokia litzatekeen eskulanaren kualifikazioa
5	Ez dira zehazki deskribatzen azpikontratatistek egin behar dituzten jarduerak
6	Azpik kontratistek ez dituzte betetzen informazio- eta komunikazio-betebeharrak
7	Azpik kontratistek ez dituzte betetzen gastuaren hautagarritasun-neurriak
8	Azpik kontratistak ez du eragiketaren dokumentazio zuzenik egin, auditoria-aztarna bermatzeko bidea emango duena

IX. ERANSKINA. BANDERA GORRIAK EGIAZTATZEKO ZERRENDA.

SEMarekin finantzaturako proiektuak gauzatzeko espedienteetan sartzeko eredu.

Espedientea:

Espedientearen fasea:

Betetze-data:

BANDERA GORRIAREN KODEA KATALOGOAN	BANDERA GORRIAREN DESKRIBAPENA	Detektatu al da prozeduran Mankomunitateak definitutako bandera gorrietakoren bat?			OHARRAK	HARTU BEHARREKO EDO HARTUTAKO NEURRIAK	ARDURADUNA
		BAI	EZ	Ez da aplikatzen			

Betetze-data:

Bete duenaren izena, abizenak eta postua:

Bete duenaren sinadura: